



**SEBASTIAN SALABERRIA**

**NERE SOROKO  
EMAITZAK**

**SEBASTIAN SALABERRIA**

AUSPOA LIBURUTEGIA

172

---

Auspoa Liburutegia  
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa Maria, 2 – Tolosa, Gipuzkoa  
Tel. (943) 67 12 82

SEBASTIAN SALABERRIA

**NERE SOROKO  
EMAITZAK**

AUSPOA LIBURUTEGIA  
1984

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Guipúzcoa)  
Fotokonposatzalle: Lente – Estella  
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)  
ISBN 84 – 7158 – 115 – 9  
Depósito Legal: NA.: 557-1984

## ITZAURREA

Sebastian Salaberria, aspaldiko ezaguna dute *Auspoa*'ren irakurleak. Sail ontako 38'garren alea, *Neronek tirako nizkin* izenekoak, berak idatzia baita.

Liburu ura itz-lauz edo prosaz egin zuan, gerra-denborako bere ibillerak kontatuz. Bai 1963 urteko *Agora* saria irabazi ere.

Bere bizitzaren txetasun asko ematen dizkigu liburu ortan: Oiartzun'go Elbitxuri baserrian jaio zala 1915'eko Abenduaren 26'an; gurasoak txikitan galdurik, gazte denbora morroi igaro zuala; ondoren gerrara joan bearra etorri zala, an zauritu ta ankamotz gelditzeko; ta abar ta abar.

Gerra ezkeroztik eta ia oraintxe arte, Donosti'ko Udaletxearen kontura lan egin du, eta urte-mordo ederrean Aiete'ko urdepositoaren arduraduna izan da, gaur egunean erretiroa artu ta Ernani'n bizi bada ere.

*Neronek tirako nizkin* liburuan berak esaten digunez, bertsolaria ere bada, or-

dea. Gerra aurretik langintza ortan asia ta Txirrita zanarekin ere kantatua.

Bañan geienik bertso jartzen saiatu da Salaberria. Garai batean sarritan agertzen zituan bere bertsoak *Zeruko Argia* astekarian.

Aspaldi esana nion, berak moldatutako sail guztiak bildu ta liburu bat atera bear genduala. Gure asmo ori gaur bete degu, Jaunari eskerrak.

Ortarako, Oiartzun'go erriak ere la-guntza egin du. Urtero bertso-aste bat eratzen du, izlariak, bertso-saioak, sariak eta abar antolatuz. Baita bertan jaio edo bertan bizi dan bertsolari baten liburua *Auspoa*'n argitara araziz ere. Ala, oarin bi urte Lexoti'rena azaldu zan; igaz Manterola'rena; ta aurten Salaberria'rena.

Esan bezela, liburu ontako sail batzuk leen ere argia ikusia dute. Olakoak zein diran, oar bana erantsiz esango degu. Oarrik gabe utzi ditugunak, berriz, iñun agertu gabe zeuden eta bere esku-idatzietatik atera ditu orain Salaberria'k.

Onek, irakurlea bertsoen esan-naiaz obeto jabetu dedin, itz-lauz adierazpen bat idatzi du sail batzuen aurretik.

Besterik gabe eta ustez esateko guztiak esanda, liburu au bere gustokoa izan dezan opa diogu irakurleari.

A. Z.

## ESPAÑIA'KO GERRA TRISTEARI

1936'garren urtean gerrate triste bat sortu zitzaigun España'n; eta, naiz batak bestearentzat gorrotorik izan ez, anaiak alkar iltzen ibili giñan.

Gerrate au piztu zanean, nik ogei ta bat urte neuzkan eta soldadu joan bear izan nuan, beste millaka asko bezelaxe.

Or ibili nintzan bala tartean larri; eta gero, bi tiro oin bakoitzean bana arturik eta ezkerrekoa moztuta, an arkitzen nintzan Iruñe'n, ospital militarrean, eta denbora pasa bertso batzuk jartzea bururatu zitzaidan gerrate orri buruz.

---

<sup>1</sup> Nun da nola zauritu ninduten ta abar, nere *Neronek tirako nizkin* liburuan kontatzen det. (*Auspoa*, 38)



- 1/ Amaika bider esan izan det  
mutil koskorra nintzala:  
ogei bat urte nitunerako  
gerra urbilduko zala.  
Zoritxarrez bai etorri ere  
nik pentsatuta bezela,  
ezin ukatu bala tartean  
larri ibili naizela,  
samindurikan diot gauzarik  
negargarriena dala.
  
- 2/ Milla beatzireun ogei ta amasei-  
garrren urtean ain zuzen,  
Uzta-illaren emezortzian  
gerra triste au pixtu zen.  
Nik ogei ta bat urte neuzkan da  
soldadu berialaxen,  
agintariak gogor zioten:  
«Fusillak artuta goazen!»  
Gaur nik bi oñak osorik neuzkan  
ori gertatu ez bazen.
  
- 3/ Neronek ere igartzen nion  
iritxi zala denbora,  
ta larriturik esaten nuan:  
«Soldadu joan bearko da».  
Eunka mutil gu Donosti'ra,  
lenengo Gobiernora;  
ardien gisa bildu ginduzten  
danak alkarren ondora,  
gero emendik sarjento batek  
Norte'ko estaziora.

- 4/ Trenean sartu, Aitaren egin,  
txorakeriak utzita,  
gerrate ontan ilko giñala  
baigeunden oso etsita.  
Negarrez asi giñan geienok  
ezin genion eutsi-ta,  
jende guztia kupiturikan  
gu ain triste ikusita,  
aiek eta gu agurtu giñan  
begiak malkoz bustita.
- 5/ Iritxi giñan Iruña'ra ta  
geienak infanterira,  
larriagoak ziran batzuek  
ta aiek artillerira.  
Bertan ikasi instruzioak  
eta gero Bitori'ra,  
gauz auek nola gertatu diran  
zuzen datoz memorira,  
nola eraman ginduzten danok  
Billarreal'ko mendira.
- 6/ Martxoko illaren azken aldera  
guk lenengo atakea,  
kañoi, egazkin, mortero, fusil,  
danak antxe jo ta kea.  
Eun bat metro beti aurretik  
gure gidari tankea,  
egun guztian danok laixterka,  
ura orduko nekea!  
Pentsatzen gendun berialaxen  
egingo zala pakea.

- 7/ Artu genduan Billarreal da  
jarraitu Bizkai aldera,  
kontrarioak atzeraka ta  
gu geienean aurrera.  
Bizi giñanak asko zauritu,  
iltzen ziranak lurrera;  
mendi oietan komeri latzak  
ikusiz ibili gera,  
ta aizkenean etzan goxoa  
Yurre erriko sarrera.
- 8/ Beste aldetik aitona zar bat  
etorri zan guregana,  
esanaz nola utsik zegoan  
Yurre erri ori dana.  
An sartu giñan xinisturikan  
gezurti aren esana,  
burruka gogor ekin genion  
ta lurrera iltzen zana,  
berialaxen neuri bi tiro  
oin bakoitzetikan bana.
- 9/ Lagun on batek atera niñun,  
ain negon trantze txarrean,  
antzika neure zaurietatik  
odol ustu bearrean.  
Geroxeago ni Bitoria'n  
bi medikuren aurrean,  
oña moztuta jarri niñuten  
oe zuri ederrean,  
ta gaur Iruñe'n arkitutzen naiz  
ospital militarrean.

- 10 Aldamenean dagon batentzat  
egoten naiz kupituta,  
nor ez litzake urrikalduko  
oin biak motzak ditu-ta?  
Zutik jartzeko esperantzik ez  
orrenbeste sufrituta,  
gure Jainkoak bakarrik daki  
nola gauden geldituta,  
geuren sasoirik ederrenean  
betiko elbarrituta.
- 11/ Dotriñak garbi esaten digu,  
nai badegu irakurri:  
inbiria ta gizon iltzea  
nundik zaizkigun etorri.  
Kain gaiztoak Abel il zuan,  
begira zaiozun orri;  
baña oraingo gerra triste au  
ezberdiña izugarri:  
anaiak bata bestea iltzen  
gorroto gabe alkarri.
- 12/ Gure aurreko guraso zarrak  
askotan esanak daude:  
gerrik onena baña pakerik  
txarrena degula obe.  
Jesus maitea, ordu guzitan  
zure bearrean gaude,  
eskatzen dizut Zu zeralako  
zeru lurren Jaun da Jabe:  
pake gozoa eman zaiguzu  
odolik ixuri gabe.

## ARREBARI

1936'garren urtean, España'n gerra sortu zanean, gure arreba Ramoni Errenderi'ko kale-etxe batean zegoan serbitzen; eta, etxe ori kañonazo batek jo zuala ikusirik, Frantzi'ra aldegin zuan oso beldurturik, emen etzegoala gauz onik pentsatuta.

An ere urte batzuk serbitzen pasa ondoren, berriro etorri zan Errenderi'ra eta emen ezkondu zan; eta orduan eskeñi nizkion nik bertso auek:

1/ Danak utzita noa  
bertsuak jartzera,  
triste daudenak poztu  
ta alaitutzera.  
Biotzeko arreba,  
etorri al zera,  
zure senide danak  
bixitatutzera?

2/ Frantzi'raño joan ziñan  
zu gerra asita,  
emen ere orduan  
ezin zan bizi-ta.  
Zorionean egin  
diguzu bixita,  
asko poztutzen gera  
emen ikusita.

3/ Gazte gelditu ziñan  
guraso-paltean,  
bakar-bakarrik zortzi  
anaien artean.  
Guregandik bizitu  
zera apartean,  
alkar ikusi gabe  
oinbeste urtean.

4/ Zu ikusi artean  
egon gera larri,  
etzera guk nai baña  
lenago etorri.  
Agur egin diozu  
Frantzi alde orri,  
dabilenak badaki  
danetako berri.

5/ Anai Sebastianek  
konsejatzten zaitu:  
ez geiago emendik  
iñora abitu.

Leku eder askoak  
mundu onek baitu,  
baña Euskalerrriak  
tiratutzen gaitu.

6/ Bukatutzera noa  
asitako lana,  
oraintxe bete da-ta  
ia papel dana.

Au da zure anaiak  
gaur opa dizuna:  
luzaroko bizia  
eta osasuna.

## URREIZTI'KO MARTIN ADISKIDEARI

Donostia'n, Ibaeta ballaran dagon Urreizti baserriko Txomin, Migel, Markos eta Martin Erkizia anaiak, gazte denborako nere lagun zintzoak izanak dira, oraintxe diran bezelaxe.

Baita auen arreba Iñaxi ere. Amaika otordu eder prestatu izan digun emakumea da auxe. Badu beste aizpa bat ere, berari asko laguntzen ziona.

Baita ere aitatu bear ditut, ain biotz onekoa zan beren aita Joxe Mari zana eta osaba Roke zana.

Garai batean etzitzaigun iruditzen fami-likoak ez giñanik ere. Ni Urreizti baserrian sartzen nintzan bakoitzean, iruditzen zitzaidan neure etxean sartzen nintzala. Ain giñan alkar maiteak danok. Joxe Mari zanak, beintzat, bere seme bat bezin mai-tea izan niñun beti; eta semeak, beren anai bat banintz bezelaxe artzen niñuten.



Soldadu alkarrekin ibili izan geranak, Txomin da ni. Biok kinta berekoak gera, alkarrekin gerran ibiliak.

Amaika barrikote egin degun eta sagardo eder edan izan degun baserria da Urreizti. Garai artan, orain baño oitura geiago zan barrikoteak egiteko.

Beste lagun asko biltzen giñan barrikotea egin bear genduanean; eta lanik asko jartzen genion, gure sabelak berdintzen, ain biotz oneko sukaldari iaioa dan lñaxiri. Amaika kaxuelkada goxo jan izan ditugu, berak ederki asko prestatuta. Badegu beñere bear bezela ordainduko ez diogun zorra emakume leial oni.

Sabelak ondo betetzen giñunean, jakinā, bertsolaririk eta bertsorik etzan palatzen. An jarduten giñan danok kantari anaitasun ederrean.

Erkizia anaiak danak dira gizon jatorrak, bertso-zaleak eta umoretsuak. Gazteena, Martin, nabarmenena izanik, bera soldadu joan zanean, alkarri eskutitzak idazten genizkion, batak besteari geuren berriak bialduaz.

Bertsotan ere ongi dakiena da, naiz bere eskutitzetan neri bertsorik biali ez. Beti au esaten zidan: bertsotan erakutsi bear niola, berak nik bezin ondo jakinda.

Eta, egun batez, onoko lau bertso auek biali nizkion Donosti'tik Burgos'era, bera soldadu zegon tokira:

- 1/ Bertsuetan astea  
det nik prezisua,  
Burgos'tikan biali  
dire abixua.  
Martin, jarri didazu  
lantegi pixua,  
zuri erakusteko  
ni ez naiz maixua.
- 2/ Maixuak Uztapide,  
bestea Basarri,  
oiek dakite ongi  
bertsuaren berri,  
biak kantatzen dute  
oso gustagarri;  
ikasi nai badezu  
oiengana etorri.
- 3/ Basarri ta Uztapide  
bikote zuzena,  
kantatzea oientzat  
gauzik errezena.  
Saioak egin arren  
al duten maizena,  
ez da errez aitutzen  
oien almazena.

4/ Kantatzeko ez daude  
iñoiz beldurrean,  
naiz jende asko jarri  
entzuten aurrean,  
goizean bezin errez  
iñulabarrean;  
pozik egoten gera  
oien baztarrean.

## DONOSTIA'KO KAIEAN

Jai-eguate batez pentsatu nuan Donosti'ko kai inguruan barrena bueltatxo bat ematea, eta antxen ikusi nuan funtzio polita.

Bi emakume arrantzaleak, ez dakit alkarren artean zer izango zuten; bañan beren onetatik atera ta biak jo ta kea burruka.

Etzegoan gañera aien ingurura edozein moduz sartzerik. Biak bakarrik naikoa ziran gañontzeko arrantzale guztiak ikaratzeko.

Berealaxe bururatu zitzaidan bertso batzuk jarri eta nere anai bati biali bear nizkiola, eta orrelaxe jarri nituan orain irakurriko dituzuten sei auek:

- 1/ Bertso batzuek antolatzeko  
nago umore onean,  
denbora pasa kantatuzeko  
lanik ez dezutenean.  
Funtzio onak sarritan dira  
antzokian da zinean,  
polit askoa ikusi gendun,  
anai, lengo egunean.
  
- 2/ Apirillaren aurren aldera  
lendabiziko jaiean,  
pesta polita ikusi degu  
Donostia'ko kaiean:  
asko bezela ni ere antxe  
zerbait ikusi naiean,  
bi emakume arrantzaleak  
zeuden oso sasoiean.
  
- 3/ Berrogein bana urte zituzten,  
biak edadez berdiñak,  
jendeak emen esan duanez  
amaika saio egiñak.  
Bata bestea menderatutzen  
jo dituzte alegiñak,  
zarpak puskatu, tximak zintzilik,  
baziruditen sorgiñak.

4/ Oso gustora egonak gera  
sorgin aueiri begira,  
batek *cochina* esaten zion,  
besteak tximatik tira.  
Ordu erdin bat pasatu dute  
lurrean jira ta bira,  
amaika olako funtzio eder  
kaiean ikusten dira.

5/ Batak bestea azpiratu ta  
iñora ezin aldegin,  
larritasunez estuturikan  
tristeak ezin itzegin.  
Eskuan zuan kanibitakin  
golpe tira ta utsegin,  
pixka batean inguru artan  
etzan izandu atsegin.

6/ Emakumeak asarratzean  
etsaiak berekin ditu,  
batak bestea ostiko jo ta  
begi ondoa aunditu.  
Iru gizonak eldu zioten  
eta ezin errenditu,  
zeladore bat etorri da ta  
pakeak ark egin ditu.

MARTIN ERKIZIA'RI  
BIGARREN ALDIZ

Berriro ere eskutitz bat idazten dit Burgos'tik nere lagun leiala dan Martin Erkizia'k.

Oraingo eskutitz onetan ere ez det bere bertsorik ikusi, baña esaten dit bertsoak bialtzeko berari.

Jakiña, nolabaitekoa ote zan iruditzen zitzaidan neri garai artako bertsolarien bizimodua.

Eguna bertsotan pasa eta bost duro irabazteko bertsolari on xamarra izan bear zuan batek; eta askotan lapur-beldurrik gabe etxeratzen zan dalako bertsolari ori, artzen zituan bost duroak eta geiago gastatuta.

Nik burutik kendu erazi egin nai nion Martiñi bertso-zaletasun ori, eta onoko sei bertso auek biali nizkion nere eskutitzaren barruan:

- 1/ Berri alaiak iritxi zaizkit,  
lagun Martin, zuregandik,  
luzaro gabe oien ordaña  
izango dezu emendik.  
Kantatutzea gustatzen zaizu,  
ori banekien lendik,  
baña bertsorik ez det atera  
zure kartaren barrendik.
- 2/ Bertso batzuek antolatzeko  
negon promesa eginda,  
nere biotza gaur poztu dedin  
zuri zerbait itzeginda.  
Dakien batek kantatutzea  
izugarri atsegin da,  
Martin, ixilik zertan zaude zu  
askoz geiago jakinda?
- 3/ Makiña batek artuko luke  
daukazun jakinduria,  
eskola ona zeurekin eta  
gañera bertsolaria.  
Baldin jarraitzen baldin badezu  
seguru dezu ogia,  
baña ez pentsa aundia danik  
ematen duten saria.



- 4/ Bertsolarien lantegi ori  
etzait geiegi gustatu,  
egun ederrak pasagatikan  
erromeri ta ostatu.  
Gaur egunean begiak argi,  
ezin leiteke jostatu,  
askotan amar irabazi ta  
gero amaika gastatu.
- 5/ Bein lagun batek esan zidana  
ezin zait beiñere aztu:  
bertsolariak izaten dula  
irabazi ainbat gastu.  
Gure aurreko kantari zarrak  
antzokietan jolastu,  
zintzo askoak baziran baña  
etzan iñor aberastu.
- 6/ Martin, ez pentsa bertsoetatik  
ogia irabaztia,  
askoz obe da lantegi ori  
alde batera uztia.  
Nik jarri ditut gaur ale auek,  
oso ederrak eztia;  
auen ordañak biali neri  
Burgos'tikan Donostia.

## TXERTOA

Egun batez, iru anai jardun giñan, anai oietako baten baratzen, sagar-arbola bat txertatzen; eta, jakiña, ni izan nintzan txertoa jarri niona, urte artan igartu egin bazan ere. Anai orrek emendik kanpora joan bearra izan zuan lanera urte pare baterako; eta berriro ere urrengo urtean, sagarra txertatzeko garaian, eskutitz bat bializidan, sagarra txertatu nuan esanaz. Bertso auekin izan zan nere erantzuna, bere auzoko neskatxa baten pekatua aitatuaz:

- 1/ Urteak azkar dijoaz emen  
bata bestearen urren,  
aurtengoakin milla beatzireun  
berrogei eta laugarren.  
Zure berriak txoraturikan  
naukate kanpo ta barren,  
anai arteko maitetasunak  
zer atsegiña dakarren,  
beñere ezin aztu ni zutaz  
ain urruti bizi arren.

- 2/ Anai maitea, galdetzen dezu  
sagarra txertatu al detan;  
Antonio ta zure zai nago  
nola lagunik eztetan.  
Nere txertoa itxatxiko da  
beti edo geienetan,  
joan zan urtean etzuan artu  
bañan ez egon penetan,  
sendagilleak ere ez dute  
asmatzen gero denetan.
- 3/ Txertaketako otsailla eta  
martxoan aurren antzian,  
igartutzeko arrixkua du  
bein ill ori pašatzian.  
Joan zan urtean an jardun nintzan  
anaiaren baratzian,  
sagar koxkor bat txertatutzeko  
bazeukala esan zian,  
mentua etzan itxatxi baña  
lanik asko eman zian.
- 4/ Mentua azkar artzen duana  
badago zuen auzuan,  
ori txertatu zuan gizonak  
talentu aundia zuan.  
Esan didate maripoxen bat  
erori dala lazuan,  
tristeak obe zuan pekatu  
ori egin ez bazuan,  
deximuloan zebillek baña  
aurki laguna besuan.

5/ Lendabiziko okerrak dira  
Adan da Ebak egiñak,  
gure artean geroztik dira  
aragikerizko griñak.  
Jaungoikoaren aginduetan  
gaude asko utsegiñak,  
anima loitara bota ta eman  
gorputzari atsegiñak,  
orrelakorik ez du agintzen  
Jesukristoren dotriñak.

6/ Orren moduan arkitzen dira  
munduan amaika gazte,  
argatik daude zenbait guraso  
naigabeturikan triste.  
Beren alabak bide okerrik  
artuko dunik ez uste,  
galtzak ditun bat ikusi ordu  
erdi txoratuta dauzte,  
goxoak eta miñak zer diran  
ola jakingo dituzte.

## GAIXORIK

Komeri gorriak ikusia naiz pulmonia eta pleura izeneko gaitzarekin. Biak batera etorri zitzaizkidan eta lanik asko izan nuan bieri gogor ezin egiñik.

Banekian Don Jose Almandoz oso sendagille ona zala eta gure auzoko emakume bat biali nuan berari abixatzera, neregana etorri zedin; eta bere bearra izan nuan, bizirik aterako banintzan.

Sendatu nintzanean jarri nitun onoko sei bertso auek:

- 1/ Orain pentsatutzen det bertsoak jartzea, nere pasadizoak esplikatutzea. Kulpa aundirik gabe au da sufritzea, ala ere ez nuke nai oraindik iltzea.

2/ Mikela biali det  
medikuan billa,  
esan nion: «Almandoz  
etorri dedilla».  
Begiratu tristea,  
biotza debilla,  
oñak oztu ziran da  
laister nintzan illa.

3/ Almandoz etorri zan  
umil eta prestu,  
bizirik arrapatu  
nindun juxtu-juxtu.  
Gaitza ezagutzeko  
begi txarra eztu,  
esan nezake berak  
ninduela pixtu.

4/ Gela illundu eta  
ala ikusirik,  
ez da beste gauza bat  
arren itxusirik.  
Ez nuan nai bezela  
artzen arnasirik,  
eskerrak Almandoz'i  
nago gaur bizirik.

5/ Momentu guzietan  
banuan bixita,  
errukitzen ziran ni  
ala ikusita.  
Begiratutzen nuan  
alderdi guzita,  
nekatu ere azkar  
izketan asita.

6/ Gaitzak ondo erantsi  
dizkit atzaparrak,  
erakutsi ere bai  
komeri ederrak.  
Auldadea gallendu,  
urritu indarrak,  
baña oraindik bizi naiz,  
Jaunari eskerrak.

## PEDRO MARIA ORIA'RI

Legazpia'ko errian bizitzen dan nere lagun leial Pedro Maria Oria'ri biali nizkion onoko lau bertso auek, gure alaba Miren Begoña jaio zanean, bataio-egunean bazkaritara gonbiatuz:

- 1/ Orain kantu-lanari  
bear diot eldu,  
nere lagun maiteak  
erantzungo al du.  
Gure oitura zarrik  
ez dedien galdu,  
Pedro Mari, ordañak  
jarri ta bialdu.



2/ Jakin nai bazenduke,  
lagun, gure berri,  
zer gertatu dan esan  
nai dizut zedorri:  
alabatxo bat digu  
Jainkoak ekarri;  
Pedro Mari, jaiean  
bazkaltzera etorri.

3/ Pedro Mari, au poza  
gure barrenian,  
aur ori osasuntsu  
etorri danian!  
Jaio zan apirillak  
lau zituanian,  
ta bataioa degu  
Pazko-egunian.

4/ Jaun Zerukoak eman  
deizula grazia,  
lagun biotzekoa,  
dezu merezia  
osasuna ta urte  
askoko bizia;  
agur, Pedro Mari ta  
famili guzia.

\* \* \*

Legazpia'ko errian festak Maiatzaren 3'an izaten dira, Gurutze Donearen egunean; eta nere lagun Pedro Maria Oriak festa-egun oietan ikusi nai giñun, Donostia'n Antigua ballaran dagon Txantxa-erreaka baserriko Patxi eta ni.

Ain borondate onez gonbidatu baigiñun, biok alkarrekin joatea pentsatu gendun, eta bai egun ederra pasa ere, naikoa jan da edanez eta gero bertsotan saio ederrak egiñez.

Bertsolari iaioa baita Pedro Mari eta umore oneko gizona, eta olako lagunaren ondoan ez da aspertu ere egiten bat. Eta, bere eskutizari erantzunaz, onoko bi bertso auek biali nizkion:

- 1/ Pedro Mari da nere lagun bat  
Legazpi'n bizitzen dana,  
bere anai bat banintz bezela  
oroitutzen da nigana.  
Ta nai zenduke iru lagunok  
or biltzea alkarrena,  
datorren illen irua degu  
ortarako ederrena.

2/ Lagun prestuak abixatu dit  
Legaspi'tik Donostia:  
nai lukeala bere etxean  
Patxi ta ni ikustia.  
Asmo on ori arturik gaude  
nola bat ala bestia,  
agur, lagun zar biotzekoa,  
aurrak eta emaztia.

\* \* \*

Legazpia'ko festetan izan da ondore-  
nean, nere lagun leiala dan Pedro Mariri,  
bere egunean, nere goresmenik anaikorre-  
nak eskeñiaz biali nizkion onoko sei  
bertso auek:

1/ Milla beatzireun urte paseak,  
aurten berrogei ta amalau,  
bertso batzuek antolatzea  
orain gogoak eman nau.  
Naiz jakinduri asko izan ez  
ain gogozkoa det lan au,  
zerbait esaten asi bear det  
Jainkoak laguntzen banau.

2/ Garagarrillak baditu biar  
ogei ta beatzi egun,  
urte askoan ta zorionak,  
nere biotzeko lagun.  
Osasuna ta pake gozoa  
Jaunari eska zaiogun,  
San Pedroren jai zoragarri au  
ongi ospatu dezagun.

3/ Arriturikan etorria naiz,  
nere lagun Pedro Mari,  
ezin asperturikan begira  
Legazpi'ko erriari:  
fabrikazio galantak eta  
etxe berriak nun-nari,  
merezi du ta eskerrak eman  
Don Patrizio jaunari.

4/ Don Patrizio Etxeberria  
ezerezetik asita,  
gure Jainkoak lagundu dio  
eta ongi merezita.  
Orrek besuak zabaldu ditu  
errian alde guzita,  
lengoa danik ez du ematen  
Legazpi'k gaur ikusita.

5/ Gipuzkoa'ko erri pollit au  
apaindurikan gain da azpi,  
ballara berri zoragarri bat  
ta zenbat gauza daukazki.  
Begiratu ta ez du ematen  
lengoa danik Legazpi,  
bertara junda ikusi bear,  
esatea ez da aski.

6/ Gaztetasunak aldegin zion,  
iritxi zaio zartzia,  
opa diogu osasun onez  
luzaroan bizitzia.  
Gustatzen zaio bear bezela  
errian portatutzia,  
merezi luke irudi on bat  
plazan erdian jartzia.

## LEGORTEA

Udara batez emen ezagutu genduan legorte luze negargarri bati eskeñi nizkion onoko sei bertso auek:

- 1/ Milla beatzireun berrogei eta amabostgarren urtian,  
bertso batzuek jartzera noa nola komeni baitian.  
Beste lekutan ere bai baña Gipuzkoa'ko partian  
zer kontatua badago aurten baserritarren artian.

2/ Pikardi ori ikusi eta  
nor ez liteke kupitu?  
Oker aundia izan da eta  
au nola erremeditu?  
Labore franko bazegon baña  
legorrak ondatu ditu,  
baserritarrak aurten ez dira  
oso ederki gelditu.

3/ Aurtengo ontan izan da emen  
legorte izugarria,  
aztuta gaude gure lurreen  
noiz egin zuan euria.  
Labore dana gutxiegi ta  
ez da bilduko erdia,  
baserritarren bizimodua  
ez al da negargarria?

4/ Aziendakin ere ez dute  
oso alderdi ederra:  
almazenean dana garesti,  
soroan urri belarra.  
Goseak ilko ez bazaizkate  
utsean eman bearra,  
esaten dute ala ere: «Ondo  
bizi dek baserritarra!»

5/ Mundu onetan ez dago errez  
nai bezin ondo bizitzen,  
beti geiegi kostatzen baita  
dirua irabazitzen.

Errenta ezin osaturikan  
urte guztian sufritzen,  
baserritarrarengatik ez da  
ala ere iñor kupitzen.

6/ Legorte onek jorratu ditu  
nola goiak eta biak,  
ez dira leku asko izango  
onek ondatu gabiak.  
Ta bere esku nola baitaukan  
zeru-lurraren Jabiak,  
komeni bada eman ditzala  
au baña urte obiak.



## UDABERRIA

Gure biotzak pozez asetzen  
ditu udara berriak,  
beñere aztu ezin ditugun  
ain egun zoragarriak.  
Baratzak ere ikusten dira  
lore mardulez jantziak,  
gaubean intzak maitatzen ditu  
ta egunez eguzkiak.  
Oiekin berdin erri ta ibai,  
baserri, zelai, mendiak.  
Zuaitz gañetan nabaitzen dira  
txiruliuka txoriak,  
sasi osto pe babes goxoan  
antolaturik kabiak;  
arreta aundiz azten dituzte  
beren umetxo txikiak,  
erakutsiaz auek dirala  
gure oitura garbiak,  
sinismengarri zero ta lurren  
Jaun da Jabeak jarriak.

## NERE ANAI SATURNINO ZANARI

Nere anai Saturnino zanari, Afrika'n gerra zebillen garaian tokatu zitzaion soldadu joan bearra; eta, gerrate artara ez joatearren, Frantzi'ra aldegin zuan desertore.

Urte askoren buruan, bi gobernuak, España'koak eta Frantzi'koak alegia, erreztasuna jarri zieten garai artan emendik desertore joan ziranei, nai bazuten beren familiak ikustera etorri; eta egun batez, Endaia'ko zubian arkitu giñan gure anai ori Frantzi aldetik eta gu, beste iru senide, España'ko aldetik.

Agintarien baimenarekin bildu giñan zubiaren erdira Saturnino eta ni, eta an besarkatu giñan ainbeste urtean alkar ekusi ez gendun bi anaiak. Eta, berriro ere, ura aruntz joan zan eta ni onuntz, pena aundiarekin, ez baitziguten nai ainbat itz egi-teko baimenik eman.

Gure anai Polikarpo ere berarekin joan  
zan, egun batzuk bere etxean pasatzera.

Eta nik, San Saturnino egunerako nere  
goresmenik anaikorrenak eskeñiaz, biali  
nizkion ondoren irakurriko dituzuten bertso  
auk:

1/ Iru senidek alkartutzeko  
aukeratu gendun jaia,  
orretarako toki polita  
arkiturikan Endaia.  
Aspalditxoan guk bagendukan  
araño iritxi naia,  
pozaren pozez besarkatzeko  
Frantzi'ko gure anaia.

2/ Zu Españi'tik erten ziñala  
urte batzuek badira,  
bañan Jainkoak bildu gaitu gu  
besarkatzeko tokira.  
Agintarien baimenarekin  
biok zubian erdira,  
biotzez maite diran anaiak  
orrela alkartzen dira.

- 3/ Anai maitea, zu ikusteko  
neukan promesa egiña,  
joan zan jaiean kunplitu nuan  
ta au nere atsegiña.  
Itz egiteko denbora gutxi,  
ark ematen ziran miña,  
ixtimatuko nuan gurekin  
onuntz etorri baziña.
- 4/ Poztu zaitea, aurki degu-ta  
San Saturnino eguna,  
zure senide geran danori  
gogoratuko zaiguna.  
Ta goresmènik beroenakin  
au da opa dizuguna:  
komeni bada urte on askoz  
pakea ta osasuna.
- 5/ Naiago nuke Frantzia'n banintz  
San Saturnino egunez,  
anaia, zuri belarritikan  
astiñaldi bat eman ez.  
Ardo urtetsu eder ortatik  
trago batzuek edanez,  
egun ederra pasa liteke  
kontu zar batzuk esanez.

6/ Ta, anai Poli, Frantzi'ra jun da  
nola arkitzen zera zu?  
Gazteagoa zeran ezker  
nere esana egizu:  
Saturnino ta famili dana  
biotzez agurtu zazu,  
belarritikan tira ta eman  
nere partetik bi musu.

## URTE EURITSUA

Urte au oso euritsua izan gendun eta arrigarrizko kalteak egin zituan batean eta bestean, batez ere gure baserritarren artean. Patata, arto, babarrun eta gañontzeko gauzak ereiteko girorik ez; eta gero, belarrak ontzeko garaia etorri zanean ere, euria goien-bean, eta danak alperrik galtzeko. Negargarrikeri ori ikusirik moldatu nituan ondoren irakurriko dituzuten sei bertso auek:

- 1/ Milla beatzireun urte pasa ta berrogei ta emezortzi,  
urte txar orri bertso batzuek jarri gabe eziri utzi.  
Baserritarrak artu bear du  
makiña bat pazientzi,  
eguzki orrek nai ez dulako  
aurpegia erakutsi.

2/ Urte batzutan izaten degu  
legortearen peskiza,  
aurten ez degu orrelakorik,  
eudia egiten du aixa.  
Sakonak eta mendiak berdin,  
danak igeri dabilta,  
arroza egiten asi gindezke  
balentzianoen gisa.

3/ Kanpoko lanak aurreratzeko  
auek dira egoaldiak,  
aurtengo udaran ez gaitu asko  
izutzen bero aundiak.  
Siñale txarra: etxe barruan  
bakandu dira euliak;  
Andaluzi'ra biali ditu  
aize otza ta eudiak.

4/ Jende guztia beldurrez dago  
belarra ebakitzeko,  
etorri dira garaiak baña  
egoaldi txarrak ontzeko.  
Txorrokatuta aizeak bota  
lurrera usteldutzeko,  
lana galanki egin da gero  
dana alperrik galtzeko.

5/ Kanean bizi diran askori  
etzaiote iruditzen  
baserritarrak nola dabilzan  
jai ta aste beti sufritzen.  
Bere garaian ez baldin badu  
denborak pixkat laguntzen,  
udazkenean ez da izaten  
lan asko labore biltzen.

6/ Udazkenean ez baditugu  
ganbarak betezen gauzez,  
urte guztian gero tristura  
alaitasunaren partez.  
Zeruko Aita, eskatzen degu  
emateko borondatez,  
zure laguntza bear degu ta  
gugana oroitu zaitez.



## NERE BESOETAKO ILLOBA BATI

Nere besoetako illoba Sebastian Salaberria'ri biotz guztiz eskeñi nizkion bere egunean, nere goresmenik maitakorrenak emanaz, ondoren irakurriko dituzuten sei bertso auek:

- 1/ Illoba, gaur Ilbeltzak  
ditu emeretzi,  
biar ogei ditula  
nai du erakutsi.  
San Sebastian ezin  
guk aztuta utzi,  
donostiarrak beintzat  
ezin dute etsi,  
oitura zar onari  
nai diote eutsi.

- 2/ Nere besuetako  
illoba maitia,  
biotza daukat pozez  
gañezka betia;  
ta pentsatu det zuri  
itz bi esatia,  
gustatzen zait ejenplo  
onak ematia,  
al badezu betetzen  
saiatu zaitia.
- 3/ Arrazoi bat emango  
nizuke zuzena,  
egin nai bazenduke  
zuk nere esana:  
ez dezagun ukatu  
nork bere izena,  
euskeraz mintza zaitez  
al dezun maizena,  
gure lur ontarako  
au da errezena.
- 4/ Ama Euskera dago  
guztiori oska,  
bere seme-alabak  
nun geran galdezka.  
Buru-austea pranko  
tristeak badauzka,  
galduko ote geran  
makiña bat kezka,  
esanaz: Denak nere  
etxean baneuzka!

5/ Amatzoren malkoak  
gaur nola datozen  
bere begietatik  
guregana zuzen,  
maite badegu danok  
poztutzera goazen.  
Mundu onetan bada  
makiña bat izen,  
ederrena ama dala  
oroitu gaitezen.

6/ Munduan egiten da  
amaika izkera,  
nik ez det au utziko  
naiz jarri aukera.  
Zer egin bear degun  
noa esatera:  
baldin seme-alaba  
zintzoak bagera,  
danok maite beagu  
lenengo euskera.

## PIO XII IL ZANEAN

- 1/ Aita Santua ere il zaigu  
Pio amabigarrena,  
gure animen salbatzallea,  
Jaungoikoaren urrena.  
Jesus maitea, eman zaiozu  
ate-zaiari baimena  
zabal dezala, Artzai on ori  
sartu dedien barrena,  
beti-betiko or izan dezan  
tokirikan ederrena.
  
- 2/ Milla beatzireun urte pasa ta  
berrogei ta emezortzian,  
goizeko lauak inguru ortan,  
Urriaren beatzian,  
Castelgandolfo'n, jauregi ortan,  
gutzizko pazientzian,  
Pio amabigarrena il da  
Jaungoikoaren grazian;  
opa diogu gerta dedilla  
zeruan erdi-erdian.

3/ Larogei ta bi paseak zitun,  
ori da urte-mordua;  
guztion Aitak otsegin dio  
bete danean ordua.  
Vaticano'ko Artzai leialak  
aldegin digu zerua;  
al dan maizena erreza itzigun  
salbea eta kredua,  
ia guk ere egiten degun  
aruntz joateko modua.

## SEMEARI

Gure seme Joxe Xabierri, amabi urte betetzen zituan egunean, ikastolarako bidean zintzo jarraitzeko esanaz, nere goresmenik biozkorrenak eskeñiaz jarri nizkion ondoren datozen lau bertso auek:

- 1/ Amabi urte bete dituzu  
gaur, gure seme maitia,  
zure biotzak egon bear du  
pozez gañezka betia.  
Famili danak pentsatu degu  
goresmenak ematia,  
osasun zoriontsu batekin  
luzaro bizi zaitia.

2/ Seme maitea, mesedez zure  
aitaren esana egin:  
gurasuaren aginduetan  
ez dezazula utsegin;  
gertatzen zeran toki guzitan  
zeure izkuntzan itzegin,  
ainbat balio duan euskera  
beñere galdu ez dedin.

3/ Aitak egia esango dizu,  
seme maitea, xinistu,  
zuri konseju onak emanda  
biotza nai nuke poztu:  
mutil zintzoak lagun egiñik  
beti euskeraz jolastu,  
seaskatxoan ikasi ziñun  
lenengo itzak ez aztu.

4/ Gazteak beti izan bear du  
jakiteko kutizia,  
*analfabeto* erderaz degu  
oso izen itxusia.  
Txorakeriak utzi ta, seme,  
saiatu al dan guzia,  
gero etzaizu damutuko-ta  
orain asko ikasia.

## ANAI SATURNINO ZANARI BIGARREN ALDIZ

Frantzia'n bizi zan gure anai Saturnino zanak, baserri aundia zuan eta lan asko egin bear izaten zuan, familira ogia ekarriko bazuan, bere emazte Ilari zanarekin amairu seme-alaba izanik eta oietatik amar bizi zitularik. Bere oin batetik gaxoturik, España'ra etorri zan, egun batzuk gure artean pasatzera eta emen sendatu asmoz. Garai artan Erretereri'n bazan sendagille ospetsu bat, Comendador abizena zuana; egun batez biok joan giñan beragana, eta, erdalduna baitzan, onela egin zizkion bere galderak:

- *¿Es usted fumador? ¿Bebedor?*

Orrelaxe aritu zan pixka batean, eta gero eman zizkion bere sendagaiak eta agindu zion sendatzeko zer gauza egin bear zituan. Eta, emen zerbait sendaturik, berriro ere Frantzi'ra joan zan bere familira; eta ondorenean, bere egunean, nere goresmenik anaikorrenak eskeñiaz bializkion ondoren irakurriko dituzuten sei bertso auek:



- 1/ Urteak beren martxan dijoaz  
bat bestearen urrena,  
milla beatzireun paseak dira,  
au irurogeigarrena.  
Anai maitea, guk osasuna  
eska dezagun aurrena,  
diru pixka bat ere al balitz  
alaitutzeko barrena.
- 2/ Baserritarren bizimodua  
beti lanean jai ta aste,  
oñen gañean pasatzen dute  
makiña bat ordu triste.  
Esaten dana egia danik  
kalean ez dute uste,  
zuen ondoren datoztela ta  
or ikusiko zaituzte.
- 3/ Urte guztian badago lana  
mendian edo baratzen,  
bizi nai bada saiatu bear  
zeozeren esperantzan.  
Nekatzen danak gogo txikia  
berriro asteko dantzan,  
anai, zer moduz arkitzen zera,  
oñ ori sendatu al zan?

- 4/ Zuk badakizu Errenteria'n  
medikua Comendador;  
begiratu ta berialaxe  
galdetu zizun: ¿Fumador?,  
esanaz kaltegarri dezula  
lana egitea gogor.  
Berak agindu zizkizun gauzak  
egiten al dituzu or?
- 5/ Errenteri'ko mediku jaun au  
degu gizon atsegiña;  
noiznai etxea gaxoz beterik,  
izaten du zer egiña.  
Borondaterik onenarekin  
saiatzen da alegiña;  
denak sendatzen ditunik ez da,  
ori daukagu jakiña.
- 6/ Berdin izango dala uste det  
Españia'n da Frantzia'n:  
San Saturnino Azaruaren  
ogei ta bederatzian.  
Zuenganako maitetasuna  
daukat nere biotzian,  
ta goresmenik onenak artu  
bertso au irakurtzian.

## BESOETAKO ILLOBARI BIGARREN ALDIZ

Pasai San Pedro'n bizi dan nere besoetako illoba Sebastian Salaberria'ri, bere egunean, nere goresmenik maitakorrenak eskeñiaz biali nizkion sei bertso auek:

- 1/ Nere illoba, aurki  
da gure eguna,  
San Sebastian baita  
ospatzen deguna.  
Zure osabak au da  
gaur opa dizuna:  
luzaroko bizia  
eta osasuna.

2/ Euskaldunak dituzu  
ama eta aita,  
ez erderaz mintzatu,  
ez da egoki-ta.  
Maite dezagun gure  
izkuntza polita,  
gure lur ontarako  
ederrena baita.

3/ Gurasoak ederki  
egingo dizute,  
euskeraz erakusten  
baldin badizute.  
Ama Euskerak dio:  
Lagun zaidazute,  
egitazko biotzez  
maite banazute.

4/ Oroitu bear degu  
Ama bat degula,  
guregana aztutzen  
ez dana sekula.  
Euskal seme-alabak  
ain maite gaitula,  
badakigu oitura  
zarrak nai ditula.

5/ Gu biziko giñake  
oitura zarrian,  
ez balute jarriko  
katerik aurrian.  
Ara zer gertatzen dan  
gaur gure lurrian:  
belar onaren ordezt  
txarra indarrian.

6/ Baratzan sortu zaigu  
zenbat mota-belar,  
ona ez da indartzen,  
gaiztoa bai azkar.  
Len lorategi zana;  
gaur otea ta lar,  
olaxen galdu dira  
zenbait oitura zar.

## MANUEL MATXAIN ADISKIDEARI

Nere lagun zintzoa dan Manuel Matxain jauna, edozeñi noiznai mesede bat egiteko prestu dagon gizon atsegin bat da. Neroni ere askotan egin izan dit mesede; kalterik beñere ez. Ez dakit, gañera, naita ere egingo ote luken. Olakoxea baita berez.

Donostia'n edo beste nunbait bertsolari-txapelketaren bat baldin bada, berari esan izan diot neretzat sarrera artzeko; eta, nola edo ala, beti oroitu izan da nitaz. Urte onetan ere berari esan nion bertso auen bitartez, eta bai zintzo aski portatu ere.

- 1/ Manuel, guri Ama  
zaiguk gogoratzen,  
bañan zenbait euskaldun  
ez dek konturatzen.  
Oitura zarrak nola  
ari diran galtzen,  
alegindu gaitezen  
euskera indartzen.

2/ Euskaldunak gaur naiko  
lanakin gabiltzak,  
bañan ez dek galduko,  
alperrik zebiltzak.  
Manuel, biotzean  
ondo gorde ditzak  
amatxori lenengo  
entzundako itzak.

3/ Beartutzen gera ta  
mintzatzan gerade,  
baña ni ez naiz izan  
erderaren zale.  
Edozeñek egingo  
balirake galde,  
esango diot: Saia  
euskeraren alde.

4/ Au etzaidak aztutzen,  
Manuel, sekula:  
bertsolari-eguna  
badatorkigula.  
Jainkoak osasuna  
eman dezaigula  
ta uste dit ederrik  
entzungo degula.

5/ Manuel, beti lana  
badit iretzako,  
gaur ere prestu niok  
zerbait agintzeko.  
Badakik zer bear dan  
barrena sartzeko,  
bai al dek modurikan  
sarrerak artzeko?

6/ Joan zan urtean ere  
batzuek badituk,  
sartzerik izan ez ta  
kanpuan geldituk.  
Onezkero sarrerak  
saltzen asi dituk,  
nitaz oroitu ari,  
konponduko gaituk.



## AMA EUSKERARI

Gipuzkoa'ko Diputazioa Xenpelar saria jartzen asi zanean, moldatu nitun bigarren saria irabazi zuten bertso auk:

- 1/ Ama Euskera maitagarriya goratu nai det bertsoan,  
anai-arreba biyotzekoak,  
saia gaitezen lan ontan;  
badakit nola mintzaten diran erderaz etxe askotan,  
liburu berri onak ipiñi danok sukalde txokotan,  
oitura zarrik galdu ez dedin gure lau probintziyotan.

2/ Ama Euskera biyotzekua,  
lenago garai batian  
oiturak zintzo gordetzen ziran  
gure sorterri maitian;  
pozez txoratzen egoten ziñan  
baratzan lore tartian,  
ta gaur negarrez ikusten zaitut  
begiyak bete-betian,  
zure malkuak txuka ditzagun  
guztiyok saia gaitian.

3/ Ama Euskera, iritxi dira  
zuregana egun beltzak,  
eta biyotza zulatzen dizu  
zuri naigabe zorrotzak;  
zure begiyak poztu eziñik  
daukagu komeri latzak,  
lore mardulak ziran tokiyan  
sortu zaizkigu arantzak,  
orrelakorik etzun merezi,  
Amatxo, euskal baratzak.

4/ Ama Euskera, gertatu danik  
guz ezin degu xinistu,  
illunperatu zaigun argiya  
ez ote liteke piztu?  
Gaur eta egun negarrez dagon  
Ama bear degu poztu,  
anai-arreba biyotzekuak,  
danok euskeraz jolastu,  
seaskatxuan ikasi giñun  
lenengo itzak ez aztu.

5/ Ama Euskera, seme-alabak,  
jarri nai zaitugu alai,  
nork du biyotza ez laguntzeko  
negarrez triste dagonai?  
Gure lurrian ikusten dira  
zenbait arreba ta anai  
ikasi duten izkuntz ederra  
ez dutela mintzatu nai;  
aitak eta amak erakutsiya  
etzagun aztu nolanai.

6/ Ama Euskera, zure onduan  
billatzen degu atsegin,  
al baldin bada zure esanik  
ez genduke nai utsegin;  
anai-arreba biyotzekuak,  
egin dezagun alegin,  
gertatzen geran toki guzitan  
beti euskeraz itzezin,  
ainbat baliyo duan izkuntza  
beñere galdu ez dedin

7/ Ama Euskera, aspaldi xamar  
asiya zera erortzen,  
ta berriz altxa bear dezunik  
etzaizu iruditutzen;  
anai-arreba biyotzekuak,  
ez gera konturatutzen  
Ama gaxua nola daukagun  
beti negarrez urtutzen,  
ez gera bere seme-alabak  
ez badiyogu laguntzen.

- 8/ Ama Euskera, zuri begira  
munduan zenbait euskaldun,  
galdetzen degu Ama negarrez  
noiz arte egon bear dun;  
maite badegu bere malkuak  
lenbailen txuka ditzagun,  
anai-arreba biyotzekuak  
guztiyok egiñik lagun,  
antzika dagon Ama gaxua  
pixka bat poztu dezagun.
- 9/ Ama Euskera, galdetzen degu  
oitura zarrak nun dian,  
garai batian goien zeudenak  
gaur arkitzen dira bian;  
egun batian erori ziran  
batere uste gabian,  
eta geroztik ikusten degu  
euskaldunen sukaldian,  
Ama gaxua nola bizi dan  
negarrez bakardadian.
- 10/ Ama Euskera poztu dezagun  
danok alkarri lagundu,  
euskal baratza arlote dago,  
bear genduke txukundu;  
belar onaren tartian txarrak  
oso gaizki ematen du,  
ona indartzen saia gaitezen,  
gaiztua zañetik kendu,  
Amak maiteko ginduzke danok  
ori egingo bagendu.

11/ Ama Euskera, etzazu uste  
biyotz gogorra detanik,  
mundu onetan gorrotorikan  
iñorentzat ez daukat nik;  
lagun urkua maite dezagun,  
bestela ez degu gauz onik,  
ez det esan nai beste izkuntzak  
guretzat txarrak diranik,  
erderaz berdin mintza liteke  
euskera aztu betanik.

12/ Ama Euskera, bio jo zendun  
bein eroritzen asita,  
lore tartian goxo zeundena  
amildu ziñan sasita;  
miñ artzen degu, zuk etzenduan  
olakorik merezi-ta,  
Euskalerrriyan zure malkuak  
badatoz alde guzita,  
oz ote gera gu esnatuko  
Ama ola ikusita?<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Bertso-papera, *Gráf. Izarra- San Sebastian.*

## POZAREN POZEZ

1964'garren urtean, euskal nobelaren lenengo saria irabazi nuanean, alkar-izketa bat egin bearra izan genduan Donostia'n, erradio-bidez, Euskalerrri guztian ain ezaguna dan Maria Dolores Agirre andreak eta biok.

Ain da leiala eta biotz oneko emakumea auxe. Badirudi beti bere biotza eskuan darabilkiela. Bere denboran mesede asko egiña da neroni ere. Orain ogei ta amabost urte aiuntamentuan sartu nintzanean ere, izan nuan bere laguntzaren bearra. Berak ango ofizinetan egiten baitzuan lana, eta berari esker eman zidaten lantegi pollit bat jardiñetako lore-zai, naiz gero nere familiarekin Aiete'n, Oriamendi'ko urdepositoan, bizi.

Alkar-izketa ura egin genduanean, esan zidan norbaitek ere esan ziola bertsolaria nintzala ni eta, irabazi nuan sari orri buruz, bertso batzuk jarri bear nitzkeala.

Alaxe jarri eta biali nizkion, ondoren irakurriko dituzuten sei auek:

1/ Pozaren pozez txorian gisa  
astera nua kantari,  
bertso batzuek eskeintzearren  
nere euskal nobelari;  
lurralde ontan izanagatik  
idazle onak ugari,  
Jaun Zerukuak lagundu dio  
eskola gutxi dunari.

2/ Zori gaitzean guraso gabe  
gelditu nintzan gazterik,  
ta ez det izan askok bezela  
nik eskola ikasterik;  
garai batean ez nuan uste  
ontaraño iristerik:  
euskal nobelan lendabiziko  
saria irabazterik.

3/ Gazte denboran nik ikasteko  
naiz izan gogo berua,  
nai ainbat bider ez det zapaldu  
ikastola ingurua;  
zerbait kostata egiña dago  
nere euskal liburua,  
gutxi dakinak askoz geiago  
nekatu bear burua.

4/ Oraintxen jartzen diran sariak  
ez dira nolanaikoak,  
erdeldunantzat erderaz eta  
guretzat euskerazkoak;  
zazpi idazle izan gera gu  
zintzo saiatutakoak,  
lenengoa nik irabaztea  
nunbait nai zuan Jainkoak.

5/ *Agora*, asi bear det zuri <sup>1</sup>  
esker beroak ematen,  
zuk jarri dezun sari ederren  
jabe egin naiz-ta aurten;  
diru mordoxk'au eskuratuta  
zail da ixilik egoten,  
danok dakigu bost milla durok  
zer poza ematen duten.

6/ Liburu berri onen galdezka  
jende askotxo da asi,  
eta seigarren bertso onekin  
bear det adierazi:  
nere nobela nolakoa dan  
nai dezutenak ikasi,  
librerietan saltzen dituzte  
eta lenbailen erosi.<sup>2</sup>

---

<sup>1</sup> *Agora*, sariaren antolatzailea zan.

<sup>2</sup> Bertso auek *Zeruko Argia*'n agertu ziran,  
1965-1-10'an.



## EUSKAL ERRIKO OITURAK

- 1/ Jaun Zerukua, otoitz egiten  
dizut belaunikatuta,  
zure laguntza eman zaiguzun  
ain premizkua degu-ta;  
ixilik ezin egon naiz gauza  
askori begiratuta,  
samindurikan iñoiz jartzen naiz  
nere buruai elduta,  
Euskalerriko oitura onak  
galtzen ari zaizkigu-ta.

- 2/ Zaleturikan bezela negon  
bertso berriyak jartzeko,  
Euskal Erriyai eskeintzen dizkat  
begiyak zabaldutzeko;  
baserritarrak egiñik gaude  
kaletarraren antzeko,  
lotsaturikan gaude askotan  
euskeraz mintzatutzeko,  
zer nai dezute bide oberik  
oitura onak galtzeko?
- 3/ Gaur oraindikan euskaldun asko  
gaude begiyak itxita,  
ia lenbailen zabal ditzagun,  
badegu zer ikusi-ta;  
baserritarrak bera datozte  
mendiyan ezin etsita,  
bat baño geiago ikusten dira  
erri aldera jetxita,  
erderaz nola mintzatzen diran  
euskera txartzat utzita.
- 4/ Arriturikan egoten naiz ni  
gazte askori begira,  
pake gozua goien utzita  
nola datozen errira;  
ez luteke, ez, ori egingo  
konturatuko balira,  
utzi dezagun bide ori ta  
guazen guztiyok mendira,  
euskal oituran gorde-lekuak  
gure baserriyak dira.

- 5/ Alegiñian saiatzen gera  
ustez ondo erakusten,  
bañan ez dakit entzule danak  
ontzat artuko dituzten;  
gaur baserritar asko ari da  
bere sor-lekua uzten,  
negargarriya dala benetan  
ez ote dute ikusten?  
Oitura onak nola ez galdu  
guk ez badiyogu eusten?
- 6/ Gure lurrian gertatzen danak  
ez nau askorik poztutzen,  
zori txarrian ari dira-ta  
baserri asko ustutzen,  
aiton-amonen otoitz goxoak  
eta izkuntza aztutzen;  
au guretzako kaltean dala  
ez gera konturatutzen,  
Euskalerrriya galduko zaigu  
ez bagera esnatutzen.
- 7/ Gaztain, intxaur da sagasti onak  
ari zaizkigu urritzen,  
eta labore-soro askotan  
gaur piñua ugaritzen;  
au guretzako aurrerapena  
danik etzait iruditzen,  
zuaitzarekin bakarrik ez da  
gero gizona bizitzen,  
baserri asko ustu dirala  
ez naiz batere arritzen.

- 8/ Lanian gogoz saiatutziak  
ez du askorik baliyo,  
bere izerdiz egindakua  
bestek kendutzen badiyo;  
aitona batek nere galderai  
onela erantzun diyo,  
gizarajuak bere begiyak  
egiñikan bi erriyo:  
baserri asko ustu dirala  
piñua dala meriyo.
- 9/ Zenbait nagusi biotz gogorrek  
eziñ ikusi maiztarrik  
amaika bider esaten degu  
baña alare alperrik:  
Zer egin bear dute kalean  
ez bada baserritarrik?  
Zuaitzarekin estali dute  
labore-soro ederrik,  
bañan ez dago bizitzerikan  
piñuarekin bakarrik.
- 10/ Baserritarra, langille zera  
astean eta jaiean,  
bañan alare asko dabilta  
zu oinperatu naiean;  
zuaitzen mende jarri zaituzte  
mendi, soro, zelaiean,  
zenbait gizoni au egin bear  
otorduko garaiean:  
eskatzen duan janari ordez  
piñua jarri maiean.

11/ Artzaiak ere larri dabilta,  
erne dauzkate begiyak,  
piñuan mende ikusirikan  
baserri eta mendiyak,  
gogoraturik garai bateko  
txara ta baso aundiyak;  
aien tartian bizitzen ziran  
beorrak eta ardiyak,  
auentzat ez da gaur errukirik,  
galdu dira barrutiyak.

12/ Pizti gaiztuak nola txoriya  
uxatzen duan kabitik,  
alaxen datoz baserritarrak  
eta artzaiak menditik;  
samindurikan esaten dute:  
Galdu gera oraingotik.  
Gauza guztien Jaun da Jabia,  
lagun zaiguzu zerutik,  
Euskalerriko oitura zarrak  
ia jartzen diran zutik.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Bertso-papera, *Gráf. Izarra-San Sebastián*.

## ITURRIOTZ'KO SEGA-APUSTUA

- 1/ Milla beatzireun irurogei ta  
aurten laugarren urtian,  
apustu latza ikusi degu  
Iturriotz'ko partian;  
bi segalari janian zeuden  
gutxinez urte betian,  
oien barrenak etzeuden lasai  
alkar probatu artian.
  
- 2/ Ogei ta zazpi egun Agorrak,  
azkeneko igandia,  
goizean garaiz mendi aldera  
abiatu zan jendia;  
modu artako giruak ere  
gutxitan izaten dia,  
otz-bero beldur aundirik etzan,  
ezin eskatu obia.

- 3/ Iritxi giñan Iturriotz'a  
asmo au artu gendunak,  
eta biotza alaitzen zuan  
emengo edertasunak;  
amabi milla kristautik gora  
eta danak euskaldunak,  
maizago egin bear giñuzke  
olako alkartasunak.
- 4/ Ez badegu nai gure izkuntza  
eta oiturak galtzia,  
gauzik onena dala uste det  
mendiz-mendi ibiltzia.  
Zer atsegiña Iturriotz'en  
oinbeste euskaldun biltzia,  
danon zaindari goien degula  
Ernio'ko gurutzia!
- 5/ Sarrerak artu eskuetan da  
sartu giñan belazera,  
berialaxen aitona zar bi  
neregana jolasera:  
«Nork irabazi bear ote du?»  
lendabiziko galdera;  
erantzun nien: «Kezka ortatik  
laister aterako gera».

6/ Bi segalari ain umil beren  
maixuaren esanian,  
segak eskutan artu zituzten  
ordua iritxi zanian;  
saio latzari ekin zioten  
amaikak jo zutenian,  
ordubata arte an jardun ziran  
gelditu gabe lanian.

7/ Zulaika degu Zarautz'koa ta  
Aburuza Oiartzuarra,  
biak dirala segalariak  
dago aitortu bearra;  
motorra duan tresnaren gisa  
ebaki dute belarra,  
txikiya ona dagola baña  
aundiya ere ez txarra.

8/ Irabaztuna Zulaika degu,  
jendiak jo dio txalo,  
marka polita jarri ote dun  
egin degu errezelo;  
zortzi milla ta zazpireunekin  
berrogei eta lau kilo,  
belar-mordu au botako bada  
ez dago egoterik lo.



9/ Eun larogei eta amarri  
txikiyan alde trabesa,  
ori entzunda askok au zion:  
«Nai duanak artu beza».  
Irabaztuna nor izango zan  
asmatzen etzan erreza,  
amabi kilo gutxiagokin  
gelditu da Aburuza.

10/ Bi gizon bata bestean aurka  
segan ziranetik asi,  
ez da burruka gogorragorik  
Iturriotz'en ikusi;  
orrenbeste lan egiten dunak  
galtzerik ez du merezi,  
bañan jokuak ori du txarra:  
biak ezin irabazi.

11/ Bazkal ordua iritxi zan da  
sabelak zeuden zimurrak,  
bañan jendia an etzan egon  
jan da edateko beldurrak;  
mendi oietan zabaldu ziran  
ogi ta ollasko-ezurak,  
egun batzutan etziran gaizki  
or goiko artzai-zakurrak.

12/ Iturriotz'en jokatu izan da  
makiña bat sega-apustu,  
bañan gutxitan ibili dira  
orainguan bezin estu;  
bietan batek galdu bear du,  
ez iñork kopetik beztu,  
alkarri eman bostekua ta  
gorroto txar danak aztu.

---

<sup>1</sup> Bertsc-papera, *Izarra* - S.S. *Zeruko Argia*,  
1965-V-30.

## AMETS GOZOKO EGUNA

Baditut Donostia'n, biotzez ain maiteak ditudan illoba bi: Pedro Salaberria eta bere emazte leiala dan Martina Irizar, andre-gizon argiak eta langille purrukatuak. Illoba auek ezkondu ziran egunean jarri eta eskeñi nizkioten, ondoren irakurriko dituzuten sei bertso auek:

- 1/ Illoba Pedro, ara iritxi  
amets gozoko eguna,  
ori da zure barrengo poza,  
ori da alaitasuna!  
Zureganatu dezu biotzez  
ain maite dezun laguna,  
ta gaur osaba Sebastianek  
auxe da opa dizuna:  
zuen artian izan dedilla  
egitazko maitasuna.

- 2/ Gai ontan zerbait itzegin nai det  
nik al dedan egokina,  
bertsoen bidez ematearren  
konsejo bana edo bina.  
Mesedegarri izan leike ta  
entzun, Pedro ta Martina,  
gaur erakutsi nai lizuteke  
zuen osabak dakina:  
biotz birekin bat egitia  
dala gauzarik aundina.
- 3/ Guraso batek izaten ditu  
gauz asko egin bearrak:  
emaztearen eginkizunak,  
ala berean senarrak.  
Guretzat dira mundu ontako  
alaitasun da negarrak,  
familietan gertatzen dira  
naigabe ta ez bearrak,  
oiek guztiak uxatzen ditu  
maitasunaren indarrak.
- 4/ Gu nola geran bide ortatik  
aspaldi pasatakoak,  
orain argatik dira zuentzat  
ejenplo ta konsejoak.  
Nere illobak, gogoan artu  
osabak esandakoak:  
izan zaitezte alkarrengana  
gorrotorik gabekoak,  
benetan alkar maite dutenak  
dira zorionekoak.

5/ Nere illobak, ez aztu zuen  
guraso ta senideak,  
goguan izan oiengandikan  
jasotako mesedeak.  
Artu dezuten bide berrian  
izan zaitezte trebeak,  
zintzo betetzen saiatu gure  
oiturak eta legeak,  
ia euskeraz mintzaten diran  
ondorengo landareak.

6/ Agorrillaren azkena da gaur,  
degu egun berezia,  
zeru-laguntza izan dezute  
eta ondo merezia.  
Biotz birekin bat egitia  
baizan zuen kutizia,  
otoitz egiñez orain eskatu  
Jaungoikoaren grazia,  
pake gozoan urte on askoz  
osasuna ta bizia.

## MANUEL MATXAIN'EN OMENALDIA

Donosti'ko Aiete ballaran eta Euskalerra guztian ain ezaguna dan Manuel Matxain jaunari, ongi merezi zuan omenaldi bat eskeñi zion, oraintxe dala urte batzuk, Aiete osoak.

Izan ere, Matxain ain degu gizon argia eta leiala eta bolari bezela onenetako bat. Tokan ere, esan genezake maixutasuna berekin daukala.

Bertso berriak jartzen, berriz, iaioetan iaioenetako bat degu. Baditu makiña bat jarriak, gatza eta piperra ugari duten oietakoak, eta konta ezin ainbat sari ere bai etxeratuak.

Jakiña, gu biok beti ain lagun alkar maiteak izanik, ezin ba gelditu bere omenaldi orretara joan gabe. Bertso auek eskeñi nizkion biotzez eta bazkal ondoan berari kantatu, Aiete'n *Munto* izena duan osatu sonatuan:

- 1/ Bertsoan bidez astera noa,  
Manuel, zerbait esaten,  
zu lan askotan zerala ona  
guziak jakin dezaten.  
Birtute ori ez dute, Matxain,  
munduan danak izaten,  
maite zaituzten zure lagunak  
ara zer pentsatu duten:  
merezi dezun omenaldi bat  
eskeintzea gaur Aiete'n.
  
- 2/ Oso gazterik egiña ziñan  
pelotariekin lagun,  
ontan ere zu ona ziñala  
danok aitortu dezagun.  
Oñak arin da begiak erne,  
gerri ta besoak bigun,  
esan bearrik ez dago noski,  
Matxain, zer egiten zendun:  
sari politak irabazita  
askotan irten txapeldun.
  
- 3/ Korrikarako ere etzendun  
afizioaren paltik,  
erbian gisa gora ta bera  
ibiltzen ziñan gogotik.  
Onenarekin parte artuta,  
gaztea izanagatik,  
maixuak utzi atzera eta  
askotan Matxain aurretik,  
lendabiziko sari ederren  
jabe egiteagatik.

- 4/ Lagun zar Matxain, gogozko dezu  
bolatokita joatea,  
zeure denboran izango dezu  
millaka brilla botea.  
Bein baña geiagotan arturik  
onen danekin partea,  
entzun dedanez gertatu zaizu  
marka onak egitea,  
ta uste gabe lendabiziko  
saria eramatea.
- 5/ Erreretzako lantegi ori  
Matxain'entzat erosua,  
burnia jotzen asten danean  
aterazten dio sua.  
Ontan ere zu amaika txalo  
ta sari eder jasua,  
makiña batek artuko luke,  
Manuel, zure besua,  
ezin ukatu zu zaitugula  
tokalarien maixua.
- 6/ Esan bezela, zuk lan askotan  
daukazu erreztasuna,  
bertsoak jartzen ere, Manuel,  
zera ondo dakizuna.  
Nere ustetan merezi dezu  
gaur emen egin zaizuna,  
ta zure lagun Sebastianek  
auxe da opa dizuna:  
pake gozoan urte askoko  
bizia ta osasuna.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> *Zeruko Argia*. 1965-X-3.



## GAZTE BIURRIENTZAT

- 1/ Bide galgarri asko  
dauzka gaur munduak,  
eta zenbait gurason  
biotzak minduak;  
zuen seme-alaba  
buru-arinduak,  
pekatu lizunetan  
daude zikinduak...  
Erakutsi Jaunaren  
amar aginduak!
- 2/ Entzun, guraso biotz  
samindutakoa,  
amar aginduetan  
lendabizikoa;  
zuk baldin badakizu  
zorionekoa,  
au da seme-alabai  
erakustekoa:  
maite bear degula  
geien Jaungoikoa.

- 3/ Gazte biotzekoak,  
entzun bigarrena,  
mixiolari-gisa  
nator zuengana:  
utzi bide okerra  
ta artu zuzena,  
otoitz egin dezagun  
al degun maizena,  
ta ez ibilli aotan  
Jaunaren izena.
- 4/ Irugarrenak dio,  
arriba ta anaiak,  
garbi ospatutzeko  
igande ta jaiak;  
animako lanetan  
ez izan lasaiak,  
inguratzen badira  
uxatu etsaiak,  
auxen eskatzen digu  
guztion artzaiak.
- 5/ Laugarren ontan egin  
zintzo errezoak,  
irabazi ditzagun  
barkamen osoak;  
bide zuzenetatik  
emanik pausoak,  
pamilian ibili  
izketa gozoak,  
ta beti aintzat artu  
zuen gurasoak.

6/ Bostgarren ontan obe  
zuzen ibiltzea,  
debequatzen digu  
kristauak iltzea,  
ta ernegaturik nor  
bera urkatzea;  
ori da Jainkoari  
eskua artzea,  
eta bere anima  
betiko galtzea.

7/ Seigarren ontan bada  
zer gogoratua,  
Adan eta Ebak egin  
zuten pekatua;  
naiz Jaungoikoak izan  
au debekatua,  
zuaitezetik artuta  
jan zuten frutua,  
aragikeria da  
andikan sortua.

8/ Ta zazpigarrenaren  
beldur gabekoak,  
ostuta gauz askotaz  
jabetutakoak,  
gure artean zenbat  
dabiltz olakoak!  
Bañan izatezkero  
zorionekoak,  
beti izan gaitezen  
esku garbikoak.

- 9/ Zortzigarren ontara  
begiraturikan,  
iñoiz gelditutzen naiz  
ni arriturikan;  
zenbaitek mintzatzeko  
ez du ardurikan,  
kaltegarri etzagun  
esan gezurrikan,  
ain gutxi gezurrezko  
testigutzarikan.
- 10/ Bederatzigarren au,  
senar da emazte,  
egia danik askok  
ez dezute uste;  
bide galgarri ortan  
gain-bera zoazte,  
ta ezkondu gabeak  
ere zenbait gazte,  
agindu ontan kontuz  
ibili zaitezte.
- 11/ Amargarreneraño  
iritxi gerade,  
au ere betetzera  
beartuak gaude;  
bañan zer esan nai dun  
begiratu gabe,  
nere ustez askotxo  
egiten dirade  
oker bidez besteren  
ondasunen jabe.

12/ Ara agindu auek,  
nik adierazi,  
mesedegarri dira,  
gazteak, ikasi;  
Jainkoaren grazian  
nai badegu bizi,  
eta zeru ederra  
danok irabazi,  
munduan obra onak  
egin lendabizi.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> *Zeruko Argia*, 1966-XII-11.

## DIONIXIO INDA ZANARI

Pasai San Pedro'ko errian bizi zan, ain alkar maiteak giñan gure lagun zintzo Dionixio Inda zana.

Amaika itzaldi goxo egiñak gera biok alkarrekin. Edozeñi bururatuko ez litzaizkiken gauzak bururatzen zitzaizkion berrari. Izan ere, ain zan gizon argia ta bizkorra. Borondaterik onenez egiten zituan beti bere esku artean zebilzkien lan guziak.

Zar-sarira iritxi zan arte, Pasaia'ko Aduanan egiten zuan lana, eta arrantzarako ere afizio aundia zuan. Amaika bider etxetik aterea dago goizean goiz asko bere txaluparekin txipiroitara edo beste edozein arrai arrapatzera.

Gero, beste lanik etzuanean, beti pintatzen jarduten zan. Artista onenetakoa baitzan lan onetan ere. Pipa beteko zuan

tabakoz, pixtuko zuan eta orduak pasako zituan bere lan-gelan sartuta.

Amaika kuadro edo erretratu eder badi-tu ederki asko pintatuak: eleizetako imaji-ñak, itzas-ontzi eta gañontzeko gauzak, bere ezagun askoren irudiak eta nik al da-kit zenbat orrelako lan txalogarri egin duan bere denboran.

Il zanean, bakarren batek esan zidan larogei ta lau urte zituala. Baña, gero bere seme batek esan zidanez, ia larogei ta amar ere bazitun.

Bere jaioterriak, Pasai San Pedro'k ale-gia, ongi merezia zuan omenaldi bat eske-ñi zion. Nik ere omenaldi artan parte artu-rik, eskeñi nizkion orai irakurriko dituzuten bertso auek; eta egun eder bat ospatu gendun bere oroimengarri. Jaunak berekin dezala.

- 1/ Lagun on bat bagendun  
San Pedro'n lenago,  
giñan txoriak baño  
alkar maiteago;  
gure begiak ezin  
ikusi geiago,  
il zan da gaur zeruan  
gozatutzen dago.

2/ Larogei ta lau urte  
emen igarota,  
Jaunak eraman ziñun  
zeru eder orta;  
gu ere aurki gera  
zugana igota,  
ori danontzat berdin  
jarria dago-ta.

3/ Dionixio, ziñan  
zu gure laguna,  
egun batez guztiok  
agurtu ta juna;  
ta omenaldi gisa  
gaur egin zaizuna,  
zure erria da au  
eskeñi dizuna.

4/ Gertatzen giñanean  
alkarren onduan,  
zenbat itzaldi goxo  
egiten genduan;  
zu nor ziñan oraindik  
daukagu goguan,  
ta oroimengarri au  
merezi zenduan.



5/ Errekiñakin pipa  
arturik ortzetan,  
Euskalerrriakin zu  
beti ametsetan;  
mintzatzeko etziñan  
egoten lotsetan,  
maitiena euskera  
zendun izkuntzetan.

6/ Memori onekoa,  
itzlari trebea,  
lanean ere ziñan  
kupira gabea;  
erlijio-gauzetan  
izanik fedea,  
nun arkitu gizon bat  
zu bañan obea?

7/ Etxetikan atera  
eta aduana,  
antxen bertan egiten  
baizenduan lana;  
ta nola izan ziñan  
ibilkari ona,  
oñez pasatzen zendun  
bide ori dana.

- 8/ Zuk gogozkoa zendun  
astean da jaitan  
arrantzara joatea  
edozein garaitan;  
askok ikusi zaitu  
Pasai'ko ur oitan  
zeure txaluparekin  
iñoiz txipiroitan.
- 9/ Pintatzen pasa ziñun  
ordu atsegiñak,  
eta orain or daude  
zure obra fiñak:  
eleizan aldaretan  
dauden imajiñak,  
ta beste zenbat gauza  
ederki egiñak.
- 10/ Jainkoak doai ori  
nola eman zizun,  
musika ta kantua  
gustatzen zaizkizun;  
bertsolaritzan berri  
ondo zenekizun,  
zuk kantatuak pozik  
entzuten nizkizun.

11/ Dionixio, nago  
uste osuetan  
zabiltzala zeruko  
bide gozuetan;  
nik auxe opa dizut  
nere bertsuetan:  
Jaunak artu zaitzala  
bere besuetan.

12/ Lagunak oroitzea  
guztiz atsegin da,  
berak ere biotza  
eskeintzen zekin da;  
erregutu dezagun  
guk otoitz eginda,  
zeruan gerta dedin  
Dionixio Inda.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> *Zeruko Argia*, 1967-VI-25 eta 1969-VII-6.

## BURUZBIDE BIKANĀ

Orain dala amabost bat urte, Elgoibar'ko andre gazte bat, Pilar Goikoetxea deritzaiona, Londres'era eraman bear izan zuten ebakuntza edo operazio bat bere biotzean egitera.

Baña orretarako dirua bear zan, eta ez gañera gutxi. Irureun milla pezta lenengo pentsatu zana, gero askotaz geiago bear izan bazan ere; eta jakiña, zorigaitzez, famili beartsu batekoa izan andre ori.

Baña *Herramienta Aizdon* izeneko fabrikako langilleak, ain asmo ona arturik, egunean ordubete geiago sartzea pentsatu zuten, emakume orren ebakuntza ordaintzeko dirua osatu zedin. Berealaxe ekin zioten ordu sartzeari beste fabrika geiagotako langilleak ere. Aurrezki Kutxa Probintziala ere oso ondo portatu zan, eta

danen artean osatu zuten bear zan diru ori.

Egin zitzaion andre orri egin bear zitzaiona; eta, iru illabete Londres'en igarota ondo sendaturik, berriro etxeratu ziran bere senarra eta biak. Ez baizuan ain biotz oneko gizon orrek une batean ere bakarrik utzi gaxorik zegon bere emaztea.

Eta nik, ain borondate oneko langille oien asmo on ori ikusirik, ondoren irakurriko dituzuten bertso auek eskeñi nizkioten:

1/ Elgoibar'en badaki  
portatzen jendeak,  
ain dira trebeak,  
lanerako batere  
kupira gabeak;  
*Aizdon* fabrikan ari  
diran langilleak,  
artu dituzte asmo  
ezin da obeak;  
merezi du gaxorik  
dagoan andreak.

2/ Fabrika ortan egin  
nai dituzte lanak,  
alkaturik danak,  
laguntza izan dezan  
premier dagonak;  
badaki berri on au  
irakurri dunak,  
dirala borondate  
oneko gizonak;  
bertsuan bidez artu  
nere zorionak!

3/ Erri ortan fabrika  
geiago badira,  
dutenak kupira,  
ala esan dit beintzat  
batek belarrira:  
ez dirala gelditu  
atzera begira,  
eskua luzatzeko  
bear dan tokira;  
oiek ere laguntzen  
asi omen dira.

4/ Andre au arkitzen da  
estuasunean,  
gaxotu danean;  
fabrikanteak ori  
jakin dutenean,  
berialaxen asi  
zaizkigu lanean,  
ordubete sartu nai  
dute egunean,  
laguntz au izan dedin  
beren izenean.

5/ Pilar Goikoetxea  
dala andre ori  
esan dire neri,  
sendatu nai lukena,  
biotzetik eri;  
eskerrak Elgoibar'ko  
jende leialari,  
borondatez eraso  
diote lanari,  
laguntzeko asmoan  
gaxo dagonari.

6/ Langilleak ez dute  
borondate-paltik,  
nork bere aldetik  
orduak sartzen asi  
baidira gogotik,  
premian dagonari  
laguntzeagatik;  
arren erruki zaite,  
Jainkoa, zerutik,  
lenbailen sendatuta  
jarri dedin zutik!

7/ Ogei ta amairu urte,  
oraindikan gazte,  
bañan Pilar triste;  
badauzkatzu kezka ta  
zenbat buru-auste;  
luzarokoa danik  
etzazula uste,  
Londres'en sendagille  
onak badituzte,  
operatu ta ongi  
jarriko zaituzte.



8/ Sendatuta ekarri  
nai bada onuntza  
Pilar'en gorputza,  
Londres'en egin bear  
zaio ebakuntza;  
bañan dirua bear  
juateko aruntza,  
irureun milla pezta,  
ez da gauza utsa;  
ortarako bear da  
norbaiten laguntza.

9/ Gaitzak zenbat naigabe  
ta kezka sortzen du,  
beldurra sartzen du,  
maltzurkeriz bixita  
nun-nai egiten du;  
batere uste gabe  
atea jotzen du,  
giltzatuta kanpoan  
utzi al bagendu!  
Baña datorrenean  
berak zabaltzen du.

10/ Guk nai giñuzke egun  
asko atsegiñak  
ta gutxi samiñak,  
baña ordu guztiak  
ez dira berdiñak;  
garbi esaten digu  
Kristoren dotriñak,  
mundu zabal ontako  
pozak eta miñak  
xinisteko dirala  
guretzat egiñak.

11/ Buruzbide bikaña  
orduak sartzea,  
zuri laguntzea;  
nik ere opa dizut  
azkar sendatzea.  
Gauzarik ederrena  
konformatutzea,  
pentsaturik guretzat  
dala supritzea,  
pazientziz eraman,  
Pilar, gurutzea.

12/ Elgoibar'tar zintzoak,  
zuen baiezkuak  
dira egizkuak;  
amaika seme jator  
badu Gipuzkua'k.  
Laguntza oiek dira  
gutziz premizkuak,  
luzaturik bear dan  
tokira eskuak,  
egiten dira obra  
karidadezkuak.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> *Zeruko Argia*, 1968-XII-15.

## GORESMENAK

Oraingo bertso auek ere, nere illoba Mari Pili Salaberria eta bere senar Gaston Lizarraga'ri, ezkondu ziran egunean jarri eta biotzez eskeñiak dira, nere goresmenik biozkorrenak emanik:

- 1/ Mari Pili ta Gaston  
illoba maiteak,  
ara udaberriak  
zabaldu atea.  
Zuen biotzak daude  
gaur pozez beteak,  
ni ere poztutzen nau  
alai egoteak.

2/ Illobak, iritxi da  
udara berria,  
ta guk egin diogu  
ongi etorria.  
Gaurko egun au beintzat  
gogoangarria,  
onetxek ase baitu  
zuen egarria.

3/ Jaungoikoak jarria  
nola dan ezkontza,  
beti izan dezute  
orren esperantza.  
Naiz buruan ibili  
kezka ta zalantza,  
ara egi biurtu  
gaur zuen ametsa.

4/ Pekatuak aitortu,  
biotzak bigundu,  
anima garbitu ta  
kezka denak kendu,  
Sakramentu santua  
artuta ezkondu,  
orain biok alkarri  
bizitzen lagundu.

5/ Apaiz jaunak eleizan  
gaur egin zaituzte  
ezkongai ziñatenak  
senar da emazte.  
Landaren bat ekartzen  
badezute laiste,  
euskeraz erakusten  
saiatu zaitetze.

6/ Danon jaun da jabeak  
emanik grazia,  
illobak, ara egin  
zuen kutizia.  
Opa dizuet bear  
dezuten guzia,  
osasuna ta urte  
askoko bizia.

## DON JOSE ALMANDOZ ZANAREN OROIMENEAN

Don Jose Almandoz jauna, sendagille ospetsua eta gizon leiala izanik, bera izan zan amabi urtez lantegiko nere medikua.

Baña aiuntamentuko nere agintariak au kendu eta beste bat jarri zidaten, au ere sendagille bezela oso iaioa. Baña gaixotu nintzanean, abixatu genion eta bixita bat edo bi egin zizkidan, eta andik aurrera batiere etortzen etzala gelditu zan, gu Donosti'tik urruti xamar bizi geralako, naiz-eta kamiotik gertu egon gu bizi geran etxe au.

Gero, Don Manuel Eizagirre jauna, Hernani'n bizi dana, asi zan neregana etortzen. Gizon au ere, sendagille bezela oso azkarra degu, eta gaur ere bera da lantegiko nere medikua. Gu oso gustora gaude berarekin, abixatzen diogunean berealaxen etortzen dana baita, eta onek ematen du poza.

Bigarrenak utzi niñunean, ain gaizki ne-  
gon ni, pulmonia eta pleura bi gaitzak ba-  
tera etorri zitzaizkidalako; eta Eizagirre  
jaunari baimena eskatu nion, esanaz ea  
Almandoz jauna etorri zitekean neregana.

Baietz esan zidan. Ark bazekiala ni oso  
gaizki negoala eta nai gendun medikua  
ekartzeko.

Alaxe abixatu eta berealaxe etorri zan  
Don Jose. Ni ain gaizki ikusirik, bereala asi  
zan sendagairik onenak ekartzen, eta  
aietxek atera niñuten bizirik.

Biak egin zituzten alegin guztiak ni  
sendatzen, Almandoz'ek eta Eizagirre jau-  
nak. Jainkoak alaxe nai nunbait eta bai  
sendatu ere. Beroiei zor diotet bizia.

Baña gero, gutxien pentsatzen nuan  
garaian, jaso nuan berri samingarri au: Al-  
mandoz jauna il zala, alegia.

Beti nere lagun leiala eta zintzoa izan  
zan Migel Arrieta zanak eman zidan berri  
negargarri onen albistea, esanaz 1961'ga-  
rren urteko apirillaren 11'an Don Jose Al-  
mandoz zana atera zala gaubean etxetik  
Donosti'ra, gaixorik zegoan emakume bat  
operatzeko asmoan; eta, egin bear zituan  
lanak eginda etxera zetorrela, Martutene'-  
ko zubian beera Urumea ibaira amildu zala  
bera zetorren kotxea, eta antxe gelditu  
zala ilda.

Ain sonatua izan zan sendagille on ura



nik ain maitea izanik, bere eleizkizunetan izan da ondorenean eskeñi nizkion biotz guztiz, ondoren irakurriko dituzuten sei bertso auek:

- 1/ Gure Don Jose Almandoz jaunak guztiok agurtu gaitu, berari otoitz egin betandik ezin gindezke gelditu. Buru, esku, oin bizkorragoak nun genezazke aurkitu? Ainbat ikusi duten begiak betiko itzali ditu, gaur gaxo askok obe genduke berriz piztuko balitu.
  
- 2/ Orain ogei ta iru bat urte nere aurrean jarri zan, ta sendagille oberik ez da beste bat neretzat izan. Etxe ondoko zubian beera amildu ta bertan il zan, bai borondatez nik otoitz egin Martutene'ko eleizan, mundu ontako nere jainkoa Don Jose Almandoz baizan.

- 3/ Oraintxe dala amar bat urte  
bixita pranko egin zian,  
izan ere ni egon bainintzan  
negargarrizko trantzian.  
Sendagai onak ekarri zitun,  
larritasunak juan zian,  
eta geroztik osasunetik  
nabil poliki antzian,  
falta ederra arkitu biet  
urrena gaixotutzian.
- 4/ Nola astean, berdin jaiean,  
naiz arratsean berandu,  
Don Joserentzat ez da beiñere  
garai txarrikan izandu.  
Borondatea erakutsiaz  
min daukanari lagundu,  
ta aizkenean gizarajoa  
ezbearrak eraman du,  
gaxo zegon bat sendatzearren  
bere bizia eman du.
- 5/ Ezin zait aztu apirillaren  
amaikagarren egunik,  
ta ez det uste pixka batean  
burutik joango zaigunik.  
Gure biotzak samindu ziran  
berri triste au entzunik,  
Jaun Zerukoak nunbait ala nai,  
beti au esaten det nik:  
bide okerra bear danean  
ez da arkitzen zuzenik.

6/ Beti kotxean etzan ibiltzen,  
askotan oñez pausuan,  
bere denboran amaika aldiz  
zubi oi pasako zuan.  
Azken agurra or egin digu,  
Jaunak ala naiko zuan,  
orain guztiok eska zaiogun  
egiten dan errezuan,  
bere anima sartu dezala  
zeruko usai gozuan.

## BASERRI-BOTATZEA

Oraingo bertso auek, urte batzuetan Euskalerrian egin zan baserri-botatze negargarriari buruz jarriak ditut:

- 1/ Baserritarrak, aстера nua  
zuen berriak ematen,  
zer gorabera gertatzen diran  
bertsuen bidez esaten;  
saiatuko naiz gaur artu dedan  
lan au zuzen eramaten,  
nekazaritza astuna dala  
guztiak jakin dezaten,  
ordu askoan lana egiñez  
nola bizitzen zeraten.

2/ Oiari agur garaiz eginda  
beriala lantegira,  
denbora gutxi galtzen dezute  
erlejuari begira;  
eguneroko eginkizunak  
jakiñak izaten dira:  
ganadu-lanak egin da gero  
sorora edo mendira;  
nekea zer dan jakin nai duna  
datorrela baserrira.

3/ Ikusten degu baserritarra  
udaran eta neguan,  
nola ukullu, soro ta mendi  
zenbat lan egiten duan;  
bere ametsa pakean bizi,  
orixen dauka goguan,  
lagun onaren ordeaz etsaia  
naiz askotan inguruan,  
txori txikiak pixti gaiztoa  
izaten duan moduan.

4/ Udaberrian zuaitz gañean.  
txoria kantuz asita,  
uste gabeen pixti gaiztoak  
egingo dio bixita;  
andik aguro itzuli bear  
bere kabia utzita,  
bestela azkar ilko duala  
egon litcke etsita;  
baserritarrak samintzen dira  
ori ola ikusita.

- 5/ Beren kabia baserria da  
ta nola ez ori maite?  
Guraso zarren ondorengoak  
au eredutzat daukate;  
odol bereko kristauak bertan  
konta ezin ainbat urte,  
bañan gaur asko asarre daude  
ta motiboa badute:  
pizti gaixtoak txorian gisa  
etxetik bialtzen dute.
- 6/ Agintarien buruzbidea  
lan aundietan sartzea,  
kamio eta bizi-lekuak  
azi ta ugaritzea;  
komeniko da erriak eta  
ballarak zabaldutzea,  
bañan tristea jendea ola  
etxetik bialdutzea,  
ta tristeago berriz oraindik  
baserriak botatzea.
- 7/ Olako gauza negargarriak  
nun-nai gertatzen dirade,  
bat or daukagu gu bizi geran  
etxetik urruti gabe;  
len zutik zegon Laxtuenea  
gaur jota dago goia be,  
ain maite ziran tellatu-peak  
elkarri musuka daude,  
nere begiak au ikusiko  
ez balute askoz obe!

- 8/ Laxtuene'ko auzo leiala  
guk etzaitugu aztutzen,  
familikoak ez giñanikan  
etzaigu iruditutzen;  
Pako, lanean jarduten ziñan,  
lñaxi zuri laguntzen,  
ta aurrak berriz etxe aurrean  
pelotarekin jostatzen,  
zuek orrela ikusirikan  
gu ere pozez txoratzen.
- 9/ Zuaitz gañeko txorian gisa  
gaur asko dago beldurti,  
zergatik ori gertatu zaion,  
Pako, makiñatxo bati;  
len elkarrekin izaten giñan  
aniaak bezela beti,  
orain kalean bizi zerate  
guregandikan urruti,  
au ikusirik gure biotzak  
nola ez egin bi zati?
- 10/ Etxeko gauzak ematen dute  
estuasun da larria,  
arakiñaren gain ikusirik  
ganaduen sal-neurria;  
itxura-antzean ordaindu arren  
galera izugarria,  
dituan tresnak utsean eman,  
gero bota baserria,  
negargarririk ezer badegu  
auxen da negargarria!

11/ Ixpillu ortan begira zagun  
ta konturatuko gera,  
nekazarien bizi-modua  
nola dijoan gain-bera;  
tresna zarrakin ezin joango da  
baserritikan kalera,  
norbaiti egin bearko dio  
berri batzuen galdera,  
aiek urrea ordaindu bear,  
ara nun dagon galera.

12/ Lur zoragarri onek dirudi  
jantzirik dagola urrez,  
zelai-mendiak apaindurikan  
baserri zuri ederrez;  
oietatik gaur asko lurrera  
eroriak, zoritxarrez,  
gure izkuntzaren kabi maiteak  
botatzen dituzte errez,  
argatik dago Ama Euskera  
samindurikan negarrez.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> *Zeruko Argia*, 1969-VIII-24-31.



## BANAKA BIZI EZINDA

Oraingo bertso auek ere, nik ain maitak ditudan nere illoba Mari Karmen Salaberria eta bere senar Jesus Arellano'ri, ezkondu ziran egunean, jarri nizkioten, nere goresmenik maitakorrenak eskeñiaz:

- 1/ Mari Karmen da Jesus illobak,  
banaka bizi ezinda,  
beren biotzak alkartutzeko  
zeuden promesa eginda.  
Ezkontza-bidez maitasunean  
bizitzea atsegin da,  
neroni ere asko poztu naiz  
berri on ori jakinda.

- 2/ Maitasunezko bertso batzuek,  
illobak, nik zuentzako  
jarri nai ditut, auen bitartez  
goresmenak eskeintzeko.  
Biok egongo ziñaten noski  
zaleturik ezkontzeko,  
lengo xarrari agur egin da  
bide berri au artzeko.
- 3/ Gure begiak ikusten dute  
makiña bat bide berri,  
batzuek gure mesedetako,  
beste asko kaltegarri.  
Onena ezin aukeraturik  
or ibiltzen gera larri,  
nere illobak, zintzo jarraitu  
gaur artu dezuten orri.
- 4/ Artu dezuten bide berriak  
baditu aldapa latzak,  
betikan gora abiatu ta  
ikusten dira baratzak.  
Baratz oietan lore mardulak  
baña tartean arantzak,  
ta arantza oiek mintzen dituzte  
askotan gure biotzak.

5/ Zuen asmoak egongo ziran  
egun onetxen zalantzan,  
ara ametsa egi biurtu  
Jaungoikoaren laguntzan.  
Bizi zaitezte pake gozoan  
ta pozaren esperantzan,  
arantzak lore biurtzen dira  
maitasuna dan baratzan.

6/ Mesedegarri izan dedilla  
gaur egin dezuten lana:  
ezkontza-bidez alkartutzea  
bata bestearengana.  
Ta zer egun dan gogoratuaz  
egin orazio bana,  
zuen zaindari izan ditezen  
Santiago ta Santa Ana.

## AIETE'KO JAIETAN

Urte onetan, ain alkar maiteak geran Manuel Matxain'ek eta nik biok antolatu giñun bertsoak Aiete'ko ballarako festa-egunerako. Nereak auek izan ziran:

- 1/ Gurutze Donearen eguna  
degu Aiete'n zaindari,  
bertso batzuek eskeintzen dizkat  
gaur biotz guztiz berari;  
ta otoitzean eskatzen diot  
Jesus aldarekoari,  
eman zaigula osasuna ta  
pake gozoa danori.

- 2/ Agorrillaren erdi aldera  
Aiete beti pestetan,  
alaitasuna gañezka dabil  
nola zar ala gaztetan.  
Ballara zoragarriagorik  
ez dago nere ustetan;  
izen eder au lur ontan degu,  
nik ez det entzun bestetan.
- 3/ Ni ez naiz emen sortua baña  
ala ere zaitut maite,  
goiko galtzaran geientsuenak  
nere berri badakite.  
Etorri nintzan oraintxen dala  
ogei ta amazapi urte,  
geroztik beti gogoan zaitut,  
biotz nereko Aiete.
- 4/ Konturatuko al gera noizpait  
nor dan gure Gipuzkoa,  
amaika bider esaten det nik  
dirudila urrezkoa.  
Lenengo mallan dago Aiete,  
ballara eder askoa,  
Españia'ko lendakariak  
ere au du gogozkoa.

5/ Aiete beti sonatua da,  
ez dago esan bearrik,  
garai batean edaten gendun  
emen sagardo ederrik.  
Gaur zoritxarrez tolare gutxi  
ta kupel asko alperrik,  
ura aukeran badegu baña  
gu geienezan egarririk.

6/ Ezin ukatu aietearrok  
euskera maite degula,  
gure asmoak indarberritzen  
Jaunak lagun dezaigula.  
Mundu guztian zabaldu bedi  
euskaldunaren odola,  
birau gabeko izkuntz eder au  
galdu ez dedin sekula.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> *Zeruko Argia*, 1969-IX-14.

## BERRI ATSEGIN POZGARRI BAT

Nere besoetako illoba Sebastian Salaberria'ri eta gaur bere emaztea dan Maite Errazkin'eri eskeñi nizkioten bertso auek, ezkondu ziranean, San Inazio egunez, nere goresmenik maitakorrenak emanaz:

- 1/ Berri atsegin pozgarri batek  
jarri nau alaiturikan,  
argatik jartzen ditut bertsoak  
ezkontza gai arturikan.  
Nere illoba, nunbait zeunden zu  
bakarrik asperturikan,  
zure biotza aldatu nairik  
biotz bi alkaturikan.

2/ Nere besoetako illoba,  
bazendun ezkondu-naia,  
ara iritxi egun aundi au,  
ara iritxi garaia.  
Ez naiz arritzen zu egotea  
biotzez orren alaia,  
gaurtik andretzat artu baidezu  
len zendun emaztegaia.

3/ Lore mardulak ikusirikan  
gure euskal baratzetan,  
zu bizi ziñan oietatik bat  
artzeko esperantzetan.  
Orain eskerrak eman Jaunari  
beti zure otoitzetan,  
usai gozoa banatu dedin  
gaurtik zuen biotzetan.

4/ Artu dezuten bide berriak  
aldapa latzak baditu,  
baña, illoba biotzekoak,  
beldurrik gabe jarraitu.  
Ikaratuta bide erdian  
etzaitzela gelditu,  
gallurreraño joaten diranak  
Jainkoak saritzen ditu.



5/ Mari Tere ta Sebas illobak,  
maitasunaren indarrak  
uxatzen ditu familiako  
ezbear da gauza txarrak.  
Berririo betoz gaur bezelako  
une gozo ta ederrak,  
San Inaziok merezi du ta  
eman zaizkagun eskerrak.

6/ Ara illobak, nere agurra  
bertso auen aizkenean,  
badakizute nun bizi naizen  
beartzen zeratenean.  
Opa dizuet biok olaxe  
luzaro zorionean,  
pake gozoan bizi zaitezte  
alkarren maitasunean.

## ILLOBARI

Frantzia'n, Habas izeneko errian, bizi da bere familiarekin, biotzez ain maite dedan nere illoba Fifin Salaberria.

Emakume langillea, garbia eta bizkorra benetan auxe; eta, seme-alaba asko baidituzte, senarraren jornala geiegi ez dala ikusirik, udara partean otel batera joatenda, bertan lana egiñez txanpon batzuk irabaztera, familirako ondo etortzen baidira an kostata irabaziak.

Bere egunez beti biali izan dizkiot nere goresmenik maitakorrenak.

Urte batez, bere aita zana nere anai Saturnino baizan eta egun gutxi baiziran bera il zala, an izan giñan aren animaren alde egin ziran eleizkizunetan.

Ez genduan umore askorik ez Fifinek eta ez nik ere. Baña ala ere bertso auek antolatu ta biali nizkion bere egunerako:

- 1/ Fifin da zure senar Enrike  
eta aur txalogarriak,  
mugaz arunztik bizi zeraten  
illoba maitagarriak,  
zuengandikan jasotzen ditut  
Frantzi aldeko berriak,  
karta ta postal eder askoak  
baditut irakurriak.
  
- 2/ Berriro egin didazun ontan  
arkitu det zer letua,  
orko berriak zuzen jartzeko  
badezu pulamentua;  
euskeraz orrela idazteak  
badu bere meritua,  
makiña batek artuko luke,  
Fifin, zure talentua.
  
- 3/ Lanean ere ikasi zendun,  
ez eskribitzen bakarrik;  
nekea dator gu izutzeraz,  
baña zugana alperrik.  
Esku oietan ez bada beintzat  
sortzen ezereen makurrik,  
seguru nago famili ortan  
ez dala gose-beldurrik.

- 4/ Egia da, bai, jan da jazteko  
beti eskean gorputza,  
ta ortarako ez da geiegi  
senarraren jornal utsa.  
Zuk oteletik egin nai, Fifin,  
familiari laguntza,  
or ikusten da nolakoa dan  
ama onaren biotza.
- 5/ Eguzkiaren azpian bada  
makiña bat jende-klase,  
askok nai luke nekatu gabe  
jantzi ta gorputza ase.  
Baldin saiatu ezkerro danak  
lanean zu bezelaxe,  
mundu onetan ez genduke gaur  
oinbeste gerra ta gose.
- 6/ Ongi dakigu famili batek  
zenbat gauza bear duan,  
izan ezkerro ixtimatzen da  
premia degun orduan.  
Zu saiatutzen zera gogotik  
txingurriaren moduan:  
udaran pilla egiten bada  
an arkitzen da neguan.

- 7/ Gurasoaren eginkizuna  
bete nai duanak ongi,  
familiari emango dio  
bear duan ainbat ogi.  
Gai oni buruz esan litezke,  
Fifin, makiña bat egi,  
baña ohea da ixiltzea  
luzatu gabe geiegi.
- 8/ Emen San Jose ospatzen degu  
Martxoan emeretzian,  
eta uste det egun berean  
izango dala Frantzia'n.  
Alaitasunik ez da izango,  
Fifin, zure biotzian,  
nik ongi dakit ez dala pozik  
aita ta ama galtzian.
- 9/ Len ama nola galdu zenuten  
oraindik daukat goguan,  
ta orain aita galdu dezute  
zortzi urteren buruan.  
Erregutzen det oien animak  
sartu ditezen zeruan,  
komeni bada gerta gaitezen  
gero elkarren onduan.

10/ Nik ere ez det umore asko  
naiz izan bertso-zalia,  
eta onekin bukatuko det  
oraingo ekiñaldia.  
Agur, Enrike, agur, Fifine,  
agur zuen familia,  
osasanakin ongi ospatu  
San Josen egun aundia.

## XENPELAR ZANARI

(Doñua: «Aizak, i, mutil mañontzi»)

Xenpelar bertsolari sonatua il zala eun urte betetzen ziran egunerako antolatu nituan orain irakurriko dituzuten bertso auek bere oroimengarri:

- 1/ Biotzeko Errenderi,  
erri leial maite ori,  
Salaberria'k opa dizkizu  
zorion ugari;  
mingaña daukat itzlari  
eta asi naiz kantari,  
nere bertsoak eskeintzen dizkat  
Xenpelar zanari.

- 2/ Maitale det ikusia  
nik Errenderi guzia,  
Xenpelar, nola ziñan zu ortxe  
sortu ta azia;  
orain sari berezia,  
lenago irabazia,  
eskeintzen zaizun omenaldi au  
ongi merezia.
- 3/ Xenpelar aspaldikoa,  
sortzez Errenderi'koa,  
milla zortzireun ogei ta amabost-  
garren urtekoa;  
naiz eskola gabekoa  
jakinduri aundikoa,  
amaika bertso eder jarri ta  
kantatutakoa.
- 4/ Orduko bertsolariak  
ziran eskola gabiak,  
bañan plazara ertendakoan  
lanean trebiak;  
Xenpelar zanen begiak  
etziran gero nagiak,  
argatik arek esaten zitun  
askotan egiak.



5/ Bertso paregabekoak  
dira zuk jarritakoak,  
doai berezi ori baizendun  
emana Jainkoak;  
zure itzak pakezkoak,  
gorrotorik gabekoak,  
naiz askorentzat mingarri izan  
zuk esandakoak.

6/ Gaur gorrotoa badago,  
orduan ez gutxiago,  
zure bertsotan ikusten degu  
gauz au garbiago.  
Gerra-beldurra nun dago?  
Andik itzuli naiago;  
pake-zalea ziñan, Xenpelar,  
ezin da geiago.

7/ Zuk gerrari gorrotua,  
zenbat bider aitatua,  
ta zoritxarrez garai artantxe  
ziñan agertua;  
naiz Errenderi'n sortua,  
bear ur bedeinkatua,  
Oiartzun zegon gertuago ta  
an bataiatua.

8/ Frantzisko zuan izena,  
Petriarena abizena,  
bertso-saioak noiznai egiñez  
alai bizi zana;  
ona zuan almazena,  
berez itzlari zuzena,  
erriak ezin beiñ ere aztu  
olako gizona.

9/ Gazterik joan zan mendira,  
Egurrola baserrira,  
urte batzuek an igaro ta  
jetxi zan errira;  
ezkondu Errenderi'ra  
ta, ogia familira  
eramango bazuan, lanera  
fabrika aundira.

10/ Etziñan gizon aundia,  
bañan leial da argia,  
oraintxen ere aurrean daukat  
zure irudia;  
ain txori abeslaria,  
aparta bertsolaria,  
argatik orain jarri digute  
«Xenpelar-saria».

11/ Eriotza azkenean,  
sasoirik ederrenean,  
milla zortzireun larogei eta  
amargarrenean;  
Abendu illa zanean,  
Ama Birjiñ egunean,  
orain zeruan kantatuko du  
alaitasunean.

12/ Utzi zigun bertso-pilla,  
nik al dakit zenbat milla,  
naiz eskolik ez kantu-lanean  
izanik abilla;  
leiala eta umilla,  
orain eun urte illa,  
erregutzen det, arren, zeruan  
arkitu dedilla.<sup>1</sup>

*Aiete, Azaroa, 1969.*

---

<sup>1</sup> *Zeruko Argia*, 1969-XII-7.

## AIETE'KO FESTAK BERRIZ ERE

Oraingo bertso auek ere Aiete ballara-ko festa-egunerako antolatu nituan, Gurutze Donearen egunean ospatzen baidira ballara zoragarri onetako festak.

- 1/ Bertso bat edo beste  
nai nituzke jarri,  
ta eman Aiete'ko  
jai-aldien berri;  
baldin iñor badago  
pestaren egarri,  
biotzak alaitzera  
onera etorri.

2/ Neroni ere jartzen  
naiz alai-antzean  
jai zoragarri auek  
inguratutzean;  
zer poza banatzen dan  
nere biotzean,  
gure ballaran pestak  
diran bakoitzean!

3/ Agorrillak amalau  
jai-aldi luzia,  
Gurutze Donearen  
egun berezia;  
goizeko amarretan  
meza nagusia,  
parrokian bildurik  
ballara guzia.

4/ Gero ondorenean  
gañontzeko pestak:  
kirol jolas politak,  
txistu ta orkestak;  
alde bat utzirikan  
lanerako kezkak,  
erromerian datoz  
mutil eta neskak.

5/ Irrintzika dijoaz  
plazaren erdira,  
soñu alaiak jotzen  
dituzten tokira;  
neska-mutillak dantzan  
ta zarrak begira,  
euskal biotzak ola  
gozatutzen dira.

6/ Gazteak ikusirik  
pestarako trebe,  
gañontzekoak pozez  
txoraturik gaude;  
orrela jarraitzea  
guztiontzat obe,  
gure euskal oitura  
onak galdu gabe.

7/ Beste gauz bat ere nai  
dizutet agindu,  
mesedegarri da ta  
etzaitezte mindu:  
euskeraz mintzatutzen  
danok alegindu,  
baldin au galtzen bada  
guriak egin du.

8/ Xinistu ez gerala  
galduko sekula,  
Jesus gurutzekoa  
zaindari degula;  
badakigu guztion  
artzai daukagula,  
une larri guzitan  
lagun dezaigula.

*Aiete, Agorrilla, 1970<sup>1</sup>.*

---

<sup>1</sup> *Zeruko Argia*, 1970-X-4.

## EGUN POZGARRIAK

- 1/ Urte au badijoa  
poliki-poliki,  
agur egingo digu  
guztiori aurki.  
Nola bukatuko dan  
zeñek erabaki?  
Onen berri Jainkoak  
bakarrikan daki.
  
- 2/ Urreratu zaizkigu  
egun pozgarriak,  
emen dira Gabonak  
eta Eguarriak,  
gu alaitzen gaituzten  
jai zoragarriak,  
pakean ospatzeko  
Jainkoak jarriak.



3/ Beti udaberria  
nai luke biotzak,  
neguan sumindutzen  
gaitulako otzak;  
baña poztuko gaitu  
Jesusen jaiotzak,  
munduko pekatua  
kentzen dun bildotsak.

4/ Xinismengarri egin  
dedin miraria,  
Belen'era dijoaz  
Jose ta Maria;  
izar dizdiratsu bat  
dute gidaria,  
Espiritu Santuak  
emanik argia.

5/ Abenduak ogei ta  
laugarren eguna,  
ikasbide bikaña  
ematen diguna:  
Belen'en estalpe bat  
otza ta illuna,  
Jaungoikoak beretzat  
aukeratu duna.

6/ Toki arlote illun  
argi gabekoa,  
famili sagraduak  
arkitutakoa,  
ez palazio eder  
apaindutakoa;  
or jaioko da Jesus  
gure Jaungoikoa.

7/ Danok mirari onen  
zai jarririk gaude,  
sortuko dan aur ori  
da Kristo Errege;  
Bera izanagatik  
zeru-lurren Jabe,  
umil agertuko da  
arrokeri gabe.

8/ Ostatutzat estalpe  
xaxtar bat arturik,  
agertuko da Jesus  
buru makurturik;  
eta gu berriz emen  
gabiltz arroturik,  
mundu zabal onetan  
ezin kabiturik.

- 9/ Aita Santuak ere  
naiko min badauka,  
argatik ari zaigu  
beti erreguka:  
zertan gabiltzan ola  
anaiok burruka,  
arantzak eskeñiaz  
arrosaren truka.
- 10/ Aitaren biotz bera  
naigabetu degu,  
argatik da guretzat  
oinbeste erregu;  
pakean bizitzeko  
eskatutzen digu,  
baña gerra-zaleak  
izan ordea gu.
- 11/ Aberats ta beartsu,  
nola gazte ta zar,  
asmo on bana artu  
obe degu azkar;  
gure oker guzia  
gorrotoak dakar,  
grña txarrak utzita  
maita zagun alkar.

12/ Zuk guretzat izanik  
ain biotz biguna,  
Jesus aurtxoa, au da  
eskatzen deguna:  
emaiguzu pakea  
eta osasuna,  
ori baita munduko  
aberastasuna.

*Aiete, Abendua, 1970*<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> *Zeruko Argia*, 1970-XII-27.

## UDAZKENA

- 1/ Gertatu zait ostatu  
batean sartzea  
eta nere lagun bat  
antxen arkitzea.  
«Pozgarria da –zion–  
alkar topatzea!»  
Gogoratu zitzaion  
gauz bat galdetzea,  
ta nai zuan ura nik  
erabakitzea.
  
- 2/ Esan zidan: «Auxen det  
zuri galdetzeko:  
zein urte-sasoi degun  
ona bizitzeko».  
Erantzun nion beta  
pixka bat artzeko:  
«Au nere gain balego  
aukeratutzeko,  
udazkena artuko  
nuke neretzako».

- 3/ Munduko gauzak egin  
zitian Jainkoak  
gu izateagatik  
zorionekoak;  
naiz udara naiago  
izan kalekoak,  
egunik alaiena  
udazkenekoak  
ote diran diote  
mendi aldekoak.
- 4/ Baserrian betetzen  
asten dira gogoz  
ganbarak laborez ta  
kupelak sagardo;  
intxaur, gaztain da urrak  
bildurikan datoz,  
neguan jan da edan  
egiteko asmoz;  
oientzat udazkena  
obea da askoz.
- 5/ Egoaize epel goxo  
ain jostalariak  
garaiz esnaerazten  
ditu eiztariak;  
oiek noiz etorriko  
zai daude mendiak,  
andik datoz eperrak,  
uxo ta erbiak...  
Udazkenak baditu  
bere alderdiak.

6/ Artzaiak eta mendi-  
goizale diranak,  
ibilkari bizkorrak  
ditugu geienak,  
gallurretako berri  
ongi dakitenak;  
kantu, txistu ta irrintzi  
or dabilta danak,  
esanez: «Alaitutzen  
gaitu udazkenak!»

## ZUGAN LAGUNTZA ESKE

- 1/ Iru edo lau bertso  
jarri nai nituzke,  
argatik nator, Jesus,  
Zugan laguntza eske;  
Gabon-jaiak pakean  
pasa nai ginduzke,  
beti borroka ere  
aspertu gindezke.
  
- 2/ Guda-zale gerala  
nago antzema,na,  
danok pakean bizi  
bear gendukena;  
naiz nor bere aldetik  
saiatu al dana,  
mundu zar au zuzentzen  
badaukagu lana.



3/ Maitasuna gugandik  
dago urrundua,  
gorrotoa daukagu  
emen gallendua,  
ta bat bestearekin  
ezin konpondua;  
orrela zuzentzerik  
ez dago mundua.

4/ Belen'dik Aurtxo onek  
auxe agintzen du:  
biotz gogorrek bear  
dirala bigundu,  
ta borondate onez  
alkarri lagundu;  
guztiontzak obe au  
egingo bagendu.

## DON ZEZILIO AGIRRE ZANARI

Don Zezilio Agirre apaiz jauna, urte askoan Aiete ballarako eleiz-artzai zuzeneta-ko bat izan gendun. Gizon argia eta leiala.

Berari esker ikasi nuan gaur dakitan pixar au ere. Bera Aiete'n zalarik, ni neroni ere ementxe bizitzen nintzan, Azken-portu izeneko baserrian, Juan Mari Arriaga'rekin morroi. Eta Don Zezilio jauna ain maixu azkarra eta borondate onekoa izanik, berarengana joatea pentsatu nuan zerbait ikastera.

Emezortzi urte egiñak neuzkan eta artean ere ez nekien idazten eta irakurtzen; eta, bereala soldadu joan bear bainuan, berarengana joan nintzan, esanez ea, besterik ez bazan ere, familira eskutitz bat idazteko moduan jarriko niñun.

Baietz erantzun zidan; joateko berarengana eta pozik erakutsiko zidala.

Alaxe joaten nintzan neguan, illunaba-

rrean, ukulluko lanak egindakoan, beste baserritar geiagorekin batera.

Bi ordu pasatzen giñun eskolan, zortzi-retatik amarrak bitarte, eta beste zenbait maixurekin egun guztian baño geiago ikasten gendun guk bi ordu aietan Don Zeziliorekin. Alakoxe gogo biziarekin erakusten zigun erakusten zigun guztia.

Badago alde ederra maixu batetik bestera. Begiratu besterik ez dago bein eskola batean gertatu zanari. Maixuak galdetzen dio berarekin ikasten zebillen mutil koxkor bati:

– I, Josetxo: ikasi al dituk nik jarri dizkiten deberiak?

Josetxok:

– Ez.

Maixuak:

– Ez ditukela oraindik ikasi? Nik ire edadean ik alako amar ikasten nian.

Eta Joxetxok erantzun:

– Bai; ez naiz batere arritzen, nik baño maixu ohea izango zuan-da.

Gero, emen urte asko eginda, Bizkai'ko partean dagon Ea izeneko errira aldatu zan, eta antxen bizitu ziran bere arreba Karmen eta biak. Emakume on askoa au ere.

An ere oso ixtimatusa zeukan erri guztiak. Izan ere, olakoxea baita andoaindar seme bizkor eta langille purrukatu au.

Urte askoren buruan, bere apaizgoako berrogei ta amar urteak zirala-ta, aietea-

rrak ongi merezia zuan omenaldi bat berari eskeintzea pentsatu gendun.

Alaxe etorri zan guregana ain artzai leiala, lenago emen utzi zuan artaldera, eta bai egun ederra ospatu ere bere ize-nean.

Pixka batean aztuko etzaigun egun zoragarria uraxe, goiz-goizetik asita.

Meza santua berak eman zuan arreta biziz, beste bi apaiz bere laguntzalle zituaririk. Erregali txiki bat ere egin zitzaion, eta bere ikasle zintzoa izan dan Manuel Matxain'ek, meza-garaian bertso atsegin batzuk kantatu zituan.

Ondoren, euskal festa moduko bat eskeñi zitzaion; eta eguardian anaitasun-bazkaria *Idoia* izeneko ostatuan, jan-gela jendez dana beterik, maiean bera erdian zala. Ezker-eskubi, ain maiteak zitun bere illoba biak jarri ziran: Imanol eta Iñaki.

Nik ere, bazkal garaian kantatu nizkion ondoren irakurriko dituzuten bertso auek.

Eta Don Zeziliok, berak ere itzaldi bikain bat egin zigun danori eskerrak emanenez, eta alaxe guztiok agurtu giñun eta joan zan berriro ere, bera bizitzen zan erri-ra, Ea'ra.

- 1/ Udaberrian eguzkiaren  
printzak leiotik sartzean,  
eta txoriak txiruliruka  
atariko zuaitzean,  
goiz-giro epel atsegiñean  
oiek ola nabaitzean,  
ongi dakigu nolako poza  
banatzen dan biotzean.
  
- 2/ Goizean garaiz txoritxo oien  
abestiak nabaiturik,  
egun aundia dala gaurko au  
ta jarri naiz alaiturik.  
Aiete'n baida Don Zezilio  
gaur gurekin elkarturik,  
beorri emen ikusita gu  
gaude pozez txoraturik.
  
- 3/ Aiete'n bazan omenaldi bat  
beorri eskeñi-naia;  
ara ametsa egi biurtu,  
ara iritxi garaia.  
Len beorrekin giñan ardiak  
daukagu biotz alaia,  
zorionez gaur emen baidegu  
ain maite gendun artzaia.

- 4/ Buruz argia, begi erneak  
urrutira ikusteko,  
esku bizkorrak ta kupirik ez  
noiznai lanean asteko.  
Borondaterik onenarekin  
eskola erakusteko,  
maixu on baten bearra gendun  
guk zedozer ikasteko!
- 5/ Aurtxo nintzala gerta zitzaidan  
aita ta ama iltzia,  
argatikan det ikastolako  
bidea garaiz utzia.  
Ogei urtetan ere banuan  
ikasteko kutizia,  
orain dakiten pixar au ere  
beorrek erakutsia.
- 6/ Don Zezilio Agirre jauna,  
ara zer opa diotan,  
urrezko eztaiak ospatzen ditun  
egun zoragarri ontan:  
beorri meza santua ematen  
eta gu berriz bertsotan,  
Jaun Zerukoak zaindu gaitzala  
danok urte on askotan.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> *Zeruko Argia*, 1971-I-3.

## NERE SORTERRIARI

Ondoren irakurriko dituzuten bertso auek, nere sorterriari eskeñi nizkion biotzez, bertako festa-egunerako, San Estebanetan ospatzen baidira Oiartzun'go festak:

- 1/ Errenderi ta Oiartzun  
erri sonatuak,  
Jaungoikoak gureztat  
aukeratuak;  
Xenpelar ta ni gera  
oietan sortuak,  
Esteban Donearen  
eleizan sartuak;  
or sakramentuak  
ditugu artuak,  
gera garbituak  
ur bedeinkatuak,  
biok ponte batean  
bataiatuak.

2/ Biotzeko Oiartzun,  
zu nere sorterri,  
ikusia amaika  
komerri gorri;  
maite zaitun seme bat  
ara gaur etorri,  
eskerrak ematera  
lenengo zedorri;  
ta orain pozgarri,  
naiz almenez urri,  
zenbait bertso berri  
nai nituzke jarri,  
izan ditezen zure  
oroimengarri.

3/ Donosti'tik irten da  
jo det Oiartzun'a,  
bete asmoz daukaten  
eginkizuna:  
bertsotan zabaltzea  
zure nortasuna,  
ta berdiñik ez duen  
aberastasuna.  
Zer gisatasuna  
ageri zaizuna,  
biotz-maitasuna  
ta leialtasuna,  
seme argi ugari  
eman dezuna.



4/ Abizen ospetsurik  
Oiartzun'ek badu:  
Ugarte, Lekuona  
ta Mendiburu,  
Sarasti ta Isasa  
eta Aranburu,  
oiekin beste zenbait  
ere or dauzkagu;  
guztiok erregu  
egiten diegu,  
ain maite ditugu  
ta ezin aztu gu;  
danen ixpillu Lartaun  
jarriko degu.

5/ Eleiz parrokia da  
maitale ageri,  
San Esteban duela  
bere zaindari;  
or izan dira zenbait  
apaiz sermolari,  
meza eskeintzen Jainko  
aldarekoari;  
koruan kantari  
Zeruko Aitari  
otoitzean ari  
emateko guri  
guztiok nai genduken  
zorion ori.

6/ Aiuntamentu ortan  
goiz edo berandu  
okerrik aundienak  
dira zuzendu;  
agintari jaun danak  
alkarri lagundu,  
erabakia ongi  
artu ta agindu:  
beartsuak zaindu,  
jantzi ta mantendu,  
erria txukundu,  
bideak konpondu,  
orain artean ori  
zintzo egin du.

7/ Baserri zuri eder  
txukun da garbiak,  
euskeraren seaskak  
edo kabiak,  
aberastasunean  
berdiñik gabiak;  
oietatik esneak,  
arrautz, aragiak,  
bei, txekor, idiak,  
txerri ta ardiak;  
oiekin jendiak  
dirutza aundiak,  
danak merezi ditu  
nekazariak.

8/ Jauregi urtetsuak  
dirade zureak,  
baña edertasunez  
paregabeak;  
apaingarri dauzkate  
arri sillareak,  
oietan marrazkiak  
gizon ta abereak;  
gauza dotoreak,  
ezin-da obeak,  
etziran pobreak  
len oien jabeak,  
geienak ziran markes  
edo kondeak.

9/ Zure ballarak ere  
ditugu goguan:  
Altzibar, Ugaldetxo  
ta Arragua'n  
sagardo ederrikan  
edaten genduan,  
kaxuelatik janez  
kupelan onduan;  
gu giñan lekuan  
aukera zeguan,  
ta geuren orduan,  
ez ain beranduan,  
bertsoak kantatuaz  
etxera juan.

10/ Bear dezun aukera  
badezu egurrez,  
mendiak estalirik  
zuaitz-adarrez:  
piñu, aritz ta gaztain,  
pago ta lizarrez,  
ta etxe inguruak  
sagasti ederrez,  
aran da intxaurrez,  
piko ta udarez,  
osaturik errez  
garo ta belarrez;  
badirudi jantzirik  
zaudela urrez.

11/ Badakizu gerraren  
berri antziñatik:  
zirikatzen ziñuzten  
Frantzi aldetik,  
pakean lo zeundena  
esnatzeagatik,  
edo griña gaiztoko  
gorrotoagatik;  
etsaiak nun-naitik,  
ezin bota ortik,  
goitik edo betik  
tiroka gogotik,  
baña, Oiartzun trebe,  
zu beti zutik.

12/ Gerra pixtera nigan  
baletor gizonik,  
ez nioke emango  
nere baimenik;  
ez digu aizkenengo  
orrek egin onik,  
millaka kristauk beren  
biziak emanik;  
ez da euskaldunik  
eta erdeldunik  
esan lezakenik  
ori ona danik;  
pake zoriontsu bat  
opa dizut nik! <sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> *Zeruko Argia*, 1971-VIII-3.

## ZORIONA DAKARTEN EGUNAK

- 1/ Urreratu zaizkigu  
Eguberri-jaiak,  
zoriona dakarten  
ain egun alaiak.  
Belen aldera datoz  
arkume ta artzaiak,  
poztu gaitezen, poztu,  
euskaldun anaiak.
  
- 2/ Jesus agertzen zaigu  
beti biotz bigun,  
zeñen une gozoak  
eskeintzen dizkigun!  
Jai zoragarri auek,  
euskaldun da erdeldun,  
pake zorionsuan  
igaro ditzagun.

3/ Gu nola egun argiz  
berdin arratsetan,  
pakearekin gabiltz  
beti ametsetan.  
Auxe eskatzen det nik  
nere otoitzetan,  
Jaunak banatu dezan  
danon biotzetan.

4/ Munduan gaudelako  
pakearen gose,  
Belen'go estalpera  
guk begiak luze.  
Orko janari gozoz  
nai genduke ase,  
arren, erruki, Jesus,  
Maria ta Jose.

*Aiete, 1975, Abendua.*

## ALKAR AGURTZEKO ERA

- 1/ Danok dakigu urbil degula  
urte onen amaiera,  
berriro ere Gabonetako  
jai alai auetan gera.  
Anai-arrebok, oraintxen degu  
alkar agurtzeko era,  
argatik asia naiz idazten  
Pasai San Pedro aldera.
  
- 2/ Anai maitea, orko berriak  
jaso nitun zuregandik,  
abesten ere ona zera zu,  
ori banekian lendik.  
Lau bertso eder atera ziran  
eskutitzaren barrendik,  
auek zer poza eman zidaten  
goguan daukat oraindak.



3/ Zaleturikan egoten naiz ni  
bertso berriak artzeko,  
asti pixka bat nai nuke orain  
aueñ ordañak jartzeko,  
paper batian idatzirikan  
zuregana bialtzeko,  
gaztain erriak janez suaren  
onduan irakurtzeko.

4/ Oriamendi gain ontatikan  
opa dizute anaiak,  
danok igaro ditzazutela  
egun atsegin alaiak.  
Pake gozuak iraun dezala  
uxaturikan etsaiak,  
osasun zoriontsuarekin  
ospatu Eguarri-jaiak.

## LANA

1937'garren urtean asi nintzan ni Donosti'ko Aiuntamentuan lanean, jardiñeta-ko guarda lenengo, gero almazen batzuetan, eta azken ogei ta amasei urte auetan Aiete'n Oriamendi deritzaion ur-deposituan guarda.

Naiz 1981'garren urtean jubilazioa eskatu, etzidaten eman 1982'garren urte arte; eta, jubilatatu eta gero ere, amar illabetean emen jardun bear izan det, ordezkoa etorri dan arte.

Ori dala-ta, bertso auek nere anai Antoniori eskeñi nizkion beraren egunean:

1/ Naiz barrendik ez egon  
zenbait bezin lasai,  
bertsotako alai,  
zorioneko lana  
aukeraturik gai.  
Asperturik nagola  
badakizu, anai,  
baña eskatzen danik  
eztute eman nai:  
orrenbeste denboran  
jubilatzeke zai.

2/ Motiborikan asko  
badet mintzatzeko,  
egiak jartzeko,  
gure nagusi auek  
goguan artzeko.  
Esaten diet norbait  
azkar billatzeko,  
desiatzen nagola  
jubilatutzeko,  
ez ote da gizon bat  
onuntz etortzeko?

3/ Lana arkitu det nik  
nundik edo andik  
gazte-gaztetandik;  
bearrezkua dala  
badakigu lendik.  
Orain au entzuten det  
nagusiengandik:  
mesedez jarraitzeko  
aurrera oraindik.  
Ez dakigu noiz irten  
biegun emendik.

4/ Badakite lanian  
jarduten naizela  
asto bat bezela,  
berrogei ta bost urte  
daramazkitela.  
Jarraitzia nai dute  
nola edo ala,  
bistan dago oraindik  
balio detala,  
onuzkero bialdu  
ninduten bestela.

5/ Lana utzi duala  
batek pentsatzian  
poza biotzian,  
noiznai pasiátuaz  
oñez ta kotxian.  
Gero lagun artera  
noizik bakoitzian,  
kezkarikan gabe lo  
lasai arratsian;  
olaxe bizi nai det  
jubilatutzian.

6/ Anai, eskerrak eman  
gaur zaindariari,  
San Antoniori,  
berak asko laguntzen  
digulako guri.  
Badegu osasuna,  
jana ta edari,  
nik ere opa dizut  
zorion ugari:  
ongi ospatu zure  
egun aundi ori.

## AITA SANTUAREN ETORRERA

1/ Emen dira urtero  
bezela Gabonak,  
fedegarbiz ospatu  
bear ditugunak;  
ala nai du biotzez  
ain maite gaitunak,  
Erroma'tik etorri  
zaigun Artzai onak.

2/ Etorri nai zuala  
zegon itz emanda,  
Aita Santua gure  
lurrian izan da;  
ejenplo on batzuen  
premian giñan-da,  
agurtu gaitu egi  
sakonak esanda.

3/ Eliz inguruetan  
ikusi ditugu  
bere itzak entzuten  
millaka testigu;  
ikasbide bikañak  
emanak dizkigu,  
baña guri aguro  
aztuko zaizkigu.

4/ Nola ari baizaigun  
sinismena aultzen,  
guztioak alegindu  
gaitezen indartzen;  
ez badegu egia  
munduan zabaltzen,  
ez da errez izango  
etsaia zapaltzen.

*Aiete'n 1982-XII-21.*

## JAUN ON BATI

Danok dakigun bezela, 1936'garren urtean anai arteko gerra triste bat izan gendun Españi'n. Beste asko bezelaxe, ni ere antxe zauritu eta elbarritu ninduten, ezkerreko oña bala batek mozturik.

Gero, urte asko pasa ondoren, zerbait irabazbide jarri ziguten.

Baña, ortarako, gure agintari leiala dan Don Manuel Riande Lekuona jaunak joan-eterri askotxo egin bear izan ditu Madrid aldera, eta gure alde lan baliotsu asko egiña da ain borondate onekoa dan gizon au.

Egun batez, lagun-talde batek bazkaltzera gonbidatu gendun Orio'ko ostatu batera, eta nik bertso auek eskeñi nizkion:



1/ Emen bilduta gauden danori  
arratsalde on aurrena,  
Don Manueli zerbait esanaz  
alai dezagun barrena.  
Badakizute jaun on bat dala  
gaur gurekin datorrena,  
agintaritan izan liteken  
gizonikan jatorrena.

2/ Riande jauna degu gidari  
geronek alaxe naita,  
esan liteke bera degula  
elbarri guztion aita.  
Gonbidatzia pentsatu degu  
ain gizon leiala baita,  
gugana pozik etorria da  
gaur Orio'ra bazkaita.

3/ Jaun onek badu borondatea  
ta gogua lanerako,  
berialaxe bear danikan  
ez du uzten gerorako.  
Bere aulkian prest egoten da  
iñor joaten danerako,  
arpegi alaiz daki egiten  
dana gure onerako.

4/ Eginkizunak zuzendu-asmoz  
beragana joan geranez,  
azkar zabaldu digu atia  
zer nai genduken esanez.  
Naiz une artan maiaren gaña  
beterikan egon lanez,  
danak utzita serbitu gaitu  
beti borondate onez.

5/ Pauso on asko ditu gugatik  
Don Manuelek emanak,  
Madrid aldian egin dizkigu  
balio aundiko lanak.  
Berari esker degu gaur zerbait  
len ezer gabe giñanak,  
omenaldi bat merezia du  
ain ongi portatu danak.

6/ Danok dakigu Don Manuelek  
gugatik zer egin duan,  
preziaz danari lagundutzeko  
beti biotza eskuan.  
Gizon oberik ez leike izan  
guretzako Gipuzkua'n,  
opa diogu bizi dedilla  
ondo urte on askuan.

(1981-VI-24)

## ESKERRIK ASKO

Donostia'ko Aiete ballaran egiña dago *Ibermática* deritzalon lantegi berri bat. Jardin polit bat ere badu bere inguruan, eta jardin ontako lanak nik egiten ditut, lantegi au egin zan ezkeru.

Bertako langille-talde batek, oroimengarri bezela, neri zerbait eskeintzea pentsatu zuten, eta sei liburu eder erregalatu dizkirate: iru Uztapiderenak, bat Lasarterena, beste bat Xalbadorrena eta beste bat Joxe Ramon Erauskin'ena.

Oietaz gañera, nere lagun leial auek bazkari eder bat ere eman zidaten, aldi luzean gogoan izaten dan oietakoa.

Eta nik ere, nere esker ona agertuz, ondoren irakurriko dituzuten bertso auek eskeñi nizkioten, eta bazkal ondoan kanta-tu:

- 1/ Udaberria datorrenean  
txori danak abeslari,  
pozaren pozez neronek ere  
asi bear det kantari.  
Bertsotan zerbait esan nai diot  
gaurko egun aundiari,  
baña lenengo arratsalde on  
emen zeraten danori.
  
- 2/ Zaleturikan zeuden lagunak  
egun bat aukeratzeko,  
borondaterik onenarekin  
neri zerbait eskeintzeko.  
Gonbidatuta esan didate  
gaur onera etortzeko,  
ostatu ontan danok bilduta  
alkarrekin bazkaltzeko.
  
- 3/ Gizon prestuak arkitzen ditut  
nabillen leku guztian,  
aurpegi alaiz agurtzen naute  
iñoiz alkar ikustian.  
*Ibermática*'n ere aztutzat  
ez daukate Sebastian,  
nere lagunak portatzen dira  
nik merezi ainbestian.

4/ Esan liteke egin duala  
aingeruak miraria,  
zerutik intza bezela dator  
nigana erregalia:  
liburu-sorta zoragarri bat  
ta gañera bazkaria.  
Ezer merezi ez dun batentzat  
au ez al da geiegia?

5/ *Ibermática*'n dauzkat lagunak  
zein baño zein jatorrago,  
au ikusirik nere biotza  
pozez zoraturik dago;  
ta guztiori esker beroak  
eman bearrean nago,  
egiten ari baizerate nik  
merezi baña geiago.

6/ Ara ametsa egi biurtu  
zuen naia auxe zan-da,  
pozez ikusten zaituztet neri  
erregaliak emanda.  
Gure arteko ospakizun au  
nere gogozko izan da,  
orain agurtzen zaituztet danok  
eskerrik asko esanda.

*Ernani'n, 1984 Martxoak 18.*

## BUKAERA

Nere bertso-liburu au bukatzeko, gizon ospetsu baten aipamenak egin nai nituzke azken lerro auetan.

Dalako gizon ori Aita Zabala degu, Euskalerrri guztian ain ezaguna dan eta euskal kulturaren eta bertsoaritzaren alde ain lan txalogarria egiten ari dana.

Berari esker, millaka bertso, galdu zorian zeudenak, gaur argitara irtenda dauzkagu, *Auspoa* izeneko liburuetan idatzirik. Gauza jakingarri asko bertan arkitzen ditugu.

Aita Zabala'k etzuan nai nik lerro auek idazterik; baña nere naia alaxe izan da.

1/ Nere bertsoak argitaratzen  
ara egin al dedana,  
oraintxen ere jarri diot nik  
Aita Zabala'ri lana,  
Gizon au baita *Auspoa* saila  
aberasten ari dana;  
zu, irakurle, mesedez entzun  
orain esango dedana:  
liburuzale baldin bazera  
jo zazu berarengana.

2/ Oraingoz au det azken alea,  
onekin nai det bukatu,  
gerta liteke aspergarri ta  
zertan geiegi luzatu?  
Pixkabanaka asi ta ara  
liburutxoa osatu,  
borondaterik onenez ditut  
bertso auek antolatu,  
ta zeozertan utsegin badet  
arren mesedez barkatu.

## ARKIBIDEA

Itzaurrea .....	7
España'ko gerra tristeari .....	9
Arrebari .....	14
Urreizti'ko Martin adiskideari .....	17
Donostia'ko kaiean .....	21
Martin Erkizia'ri bigarren aldiz .....	24
Txertoa .....	27
Gaixorik .....	30
Pedro Maria Oria'ri .....	33
Legortea .....	39
Udaberria .....	42
Nere anai Saturnino zanari .....	43
Urte euritsua .....	47
Nere besoetako illoba bati .....	50
Pio XII il zanean .....	53
Semeari .....	55
Anai Saturnino zanari bigarren aldiz .	57




Besoetako illobari bigarren aldiz . . . .	60
Manuel Matxain adiskideari . . . . .	63
Ama Euskerari . . . . .	66
Pozaren pozez . . . . .	71
Euskal Erriko oiturak . . . . .	74
Iturrioz'ko sega-apustua . . . . .	79
Amets gozoko eguna . . . . .	84
Manuel Matxain'en omenaldia . . . . .	87
Gazte biurrientzat . . . . .	90
Dionisio Inda zanari . . . . .	95
Buruzbide bikaña . . . . .	101
Goresmenak . . . . .	109
Don Jose Almandoz zanaren oroimenean . . . . .	112
Baserri botatzea . . . . .	117
Banaka bizi ezinda . . . . .	122
Aiete'ko jaietan . . . . .	125
Berri atsegin pozgarri bat . . . . .	128
Illobari . . . . .	131
Xenpelar zanari . . . . .	136
Aiete'ko festak berriz ere . . . . .	141
Egun pozgarriak . . . . .	145
Udazkena . . . . .	150
Zugan laguntza eske . . . . .	153
Don Zezilio Agirre zanari . . . . .	155
Nere sorterriari . . . . .	160
Zoriona dakarten egunak . . . . .	167
Alkar agurtzeko era . . . . .	169
Lana . . . . .	171
Aita Santuaren etorrera . . . . .	175
Jaun on bati . . . . .	177
Eskerrik asko . . . . .	180
Bukaera . . . . .	183

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK (101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zabala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.

135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea.
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.



AUSPOA  
LIBURUTEGIA